



EUSCAL-NAPARREN JOAERA

IBO

EMIGRACIOA.

JOSÉ COLÁ ETA GOITI JAUNAC

ordoraz idribatua

ela Euskerara itzulia

MARCELINO SOROA LASA-C.

---

Laugarren argitaratza.

---

DONOSTIYAN.

JOZO ETA COMP.<sup>2</sup> BOLDISEIDIAN, ANDIA 2 AOGESOROO.

1885.



736

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

M. 23227

R. 13089

ATN. 862



EUSKAL-NAPARREN JOERA EDO EMIGRACIOA

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

# EUSCAL-NAPARREN JOAERA

KDO

## EMIGRACIOA.

JOSÉ COLÁ ETA GOITI JAUNAC

orderaz izkribitua

eta Euskerara itzulia

MARCELINO SOROA LASA-C.

Laugarren argitaratza.

---

DONOSTIYAN.

POZO ETA COMP.<sup>a</sup> MOLDISKIDAN, ANDIA 2 ACCESORIO.

1885.



EMIGRACION

EMIGRACION

EMIGRACION

EMIGRACION

EMIGRACION

EMIGRACION DA.

EMIGRACION

EMIGRACION

---

## BI ITZ AURRENA.<sup>(1)</sup>

---

**E**z degu luma escu artian artzen  
euskeras eracust-co asmuan, itz  
eder eta chucunarekin, baizic egi  
batzubez garbi eta cintzo esateco erritar-  
rari, José Colá eta Goiti jaunac erderas  
azaldu duben liburucho on batetic itzu-  
liric gure izcuntz maitagarrira, nola Ame-  
riketara juteco griña gogorra duten jen-  
deac eramaten dituzten ametz zoragarriac  
eta arkitzen diran geyenac miseri erru-  
kigarrian.

Liburuchu au iracurrita besteric ez ba-

---

(1) *Ge, gi* duten itzac, *guc, guí* bezela iracurri biar dira.

da, bat bacarric ateratzen badegu orlaco  
estuasuuneco bide charretan sartzeco as-  
moetatic, ongi pagatubac icusico dira  
gure lanac.

---

BI ITX AURFENA

---

**B**at bacarric ateratzen badegu orlaco  
estuasuuneco bide charretan sartzeco as-  
moetatic, ongi pagatubac icusico dira  
gure lanac.



---

## ERRIARI.

---

Icusiric zer larritazun zorigaiztocoa arkitzen dan Españi gucian, eta batezere gure Euscal lur maitean Ameriketara juteco oitura char orrekiñ, utziric emengo egiazco poztasunac ango ametz eruen truc, azi giñan izcribatzen egunoroco paperetan Ameriketaratu bear tristearen contra.

Nai ganduen esan, erritarrac adizezaten, gure zorionic aundiena izango zala jakinien gañian guc gendezcagun ango berri guztia zabaltzea gure anai Euscaldunen artean, eta etzediela inor gelditu illun gauza aben gañean ala beeco bazerri escutatuan, nola mendi gañean arkitzen danean; ala egi abec gogoz contuban arturic escudazedin jendia, gizonac abereac bezela saldu nai dituztenen okerratic.

Gure naia askituda Euscal erriaren oneraco.

Jende guztia bat egiñic, ala gure probintzi ederretan nola beretatic canpoan, azalduda gure alde. Eta paper moldizkiratu colore guztietacoac mesede aundiac egiñ dizkigute saya-

turic alegiñean gure lan umill au banatzeco alde eta famili guztietan.

Orrengatic bada orrela gure alde mintza diran gustiari bigaltzen dietegu biotz biotzetik ezkerac ugari.

Paper guztiac emandigute beren balimentuzco laguntza, icusiric nola gizon batzubeenai dituzten mendetu geyenac.

Guztiac bagaude aldana egin bearrean erremediatzeco sorterrico zorigaiztoac, beren biotzeco ama lagatzen ezduten seme maitalleac bezela; ondo eracutzia eta jakiña badago mendi tarteco semiac naikida geyago diola bere erriari, lecu zelaitzu eta laubetaco gizonac baño; eta gu zorionian izanic odei tartian ezcutatzen diran mendi tontorretacoac, azaldu bear degu mendietacoen modura.

Gañera izanic gure oituraz eta izcuntz zar ederraz, ez beste inñorekin nastutzeco eracoac, biar biarrian arkitzen gera gure burubekin oker jarri gabe, naitazun gozoa mendi tontor polit aberi edukitzeco.

Gure poztasun aundiena izangoda, besteric ez bada, len ezan degun bezela, bati burutic kentzea urrutico lecu ez ezagutu oietara jua-teco gogua famili maitagarria emen utziric, zergatic esaten dan bezela: «urrutico inchaurreac, beti betiac.

Zuri bada Euscal lur maitea, zoriontasun beticoa opa dizugun erria. zuri donekidatzen dizugu liburuchu au.

Zuretzat moldatzen degu, umant arrigarria,  
Cartagotar, Erromatar, Godoeta Arabeac usha-  
tu dituzuna, zure arcaitzac itzazo zacarraren  
bagac atzeratzen dituzten antzera.

FIN DE LA OBRA



---

## LENBICICO BURUA.

---

### GAUZA ONEN EGOITZA.

---

Orán deritzayon Africa lurretaco erriyan Bou-Amemac eta bere mendecoac españoletan egin zituzten eriotzac zirala bide asizan berriro Españian zabaltzen orain dala bi urte ezcas, emigracioaren aldebita gogorra, ascotan agertuba eta seculan ere ez erabakia.

Orduban gertatuzan, beti gertatzen dana billatu naidanean munduan noizic bein agertzen diran zorigaitz aundiden erremedioa.

Paper moldizkiratuac, gizon aundizkiac, gobernuac, eta bata ta bestea jardun ziran gogotic gauz onen gañean. Paper azco belztu ziran erremedioac eman naian, eta azkenian erabaki zan gauza bat.

Jarrizan Madrillen bilguma *Junta Central*-on izenekiñ, bertan arkitzen ziralaric gizonic jakintzu eta egokienac.



Orra bada. Guc galdetzen genduben orduban ¿arkituko ote dute iturrienbat azki ugariya emengo erritatic escasiyaren igesi juten diranen egarriya iltzeco? ¿Eracutzico ote diote orrenbeste gende pillari eta señaipetuco bacuitzari zer lurretan sayatu litezkean beren bizi-modua ateratzen? ¿Edo bestela escatuco diote gobernuari bucatu dezala joan bear negargarri ori, obrac ugari asirie emen irabazi dezan gendeac? ¿Egingo dute moduren bat contribuzioac guchitzeco? Ez dakigu. Bañan dakiguna da millaca ango eriotzakin izaturic etorriac, biurtu dirala ostera lur ayetara, bildur guchiago ziotela ango perillai emengo ezerezai baño.

Paper egunerocoac esantzuten ere Galiziaco probintzietatic alde egintzutela zazpireun gizonac; gerostican beste berreunec, eta Madrillaco paper oyetaco jakiñaren gañean ondo dagoen batec esatentzuben: «badakigu lecu ascotatic Euskaldunen Ameriketaco joera eta batez ere Montebideo eta Buenos Aires aldiataracoa zabaldudala icaragarrizco moduan, eta jakin degu ere ateradirala Montebideotic gende pagatubac eramateco emendic ernai ez dau den personac; eta orobat aditu da araco irteera egin duben ontzi batec eraman ditubela iya bi milla, geyenac oraindic sur errukigarri nola eta nora dijoacen ez dakitenac.»

Gañera oraindic urrutiyagoco «*Repúblicas del Pacífico*» deitzen dioten lecu beartu eta es-



casitubetatic ta batez ere Chiletic urbildu dira beste asco enganatzalle, ezkeni zoro gezurtiac egiñaz, azkeneco gertaera penagarriac eracusten duben bezela.

Emendic zijoazten irureunec, makiñabat zorigaizto icusirican bidean, Montebideon ezaguturicsaldubac zijoaztela etzuten aurrera joan nai izan; eta escatuzieten laguntza Uruguaico agintariari eta leorreratu ziran 1883-co Agorraren 17.<sup>an</sup>

Urte onen beren azken egunetan beste Napar-menditar pillabat gizon ta emacume, geyenac baztandarrac, batez ere Lecarozco erri chikicoac, zeramazkiten ardiyac bezela, bi edo iru mercatariren artean, eta abec contactzen cituzten arbasta batzubekiñ zenbat ote ziran, Hendayaco burni bidean zartzeco lecuban, eta an sardiñac zazkiyan bezela sartuzituzten cocheric chatarrenetan, Bordelaco baiya edo portura eramateco, eta emen ontzico zulo itogarrienian aragi pilla ura botaric, eguna junda eguna etorri leer egiñic Ameriketa-co lurretan oña jarri bitartian, gero makiñabat zorigaizto icusteco eta malco samiñac ishuritzeco.

Geroztic ere atera dira Naparruatic larogei gazte, eta ayen artean nezcaha batzubeac. ¿Eta ezdu balio egiac ezatea mercatari engañacor oyen ezkeni gezurtietatic ezcudatzeco?

Guchi balira bezela ogei ta ainbeste Bordelen dituzten lecubac, gendiari amuba bota eta

corcoyac balira bezela arrapatzeco, conzien-  
tziric gabe diru pusca baton truc, idatoz orain-  
dic bestiac lur ayetatic bertatic, orren gauza  
itzuzkeriac egitera Jaungoicoaren beldur san-  
turic gabe!

Makiñabat bider itz egin degu gauza abetaz,  
iscribaturic liburuchuetan eta paper egunoro-  
cuetan, bañan geruago ta indar aundiagoekin  
gauzac garbi esango ditugu gure anai mai-  
tien mesedian, zergatic egunetic egunera di-  
tugun berri penagarriac, eta zorretan arkitzen  
gera egiya esaten ez degun bitartian.

Egintzagun bada alegiña.

Penatzua tan mingarria zan orain dala bi  
urte, emendic Ameriketara joaten ziran Eus-  
caldunen bizibidea, zergatic lenendic asita ge-  
ruago ta escasago agertzenziran lecu ayec,  
icaragarrizco diru escasien estuasunac pasa-  
tzen zituztenez. Bañan oraingo berriyac Ameri-  
ketaco paperetan iracurtzen diranac, eracusten  
dute ondo, ango antzi tristeco izatea, geruago  
ta zallago ta gaitzago dala Euscaldunentzat.

Eta ¡Zer zorigaiztoa!

Onlaco estuasun aundian, jakinduda alde  
ascotatic ateradirala andic gure errietaraco  
gizon enganatzalleac, asmuekin doacabezco  
gendiac irauzitzeo beren familietaco altzotic,  
egiñican aginde gezurrezcoac beren bearreta  
chatarrentzat, eta utziric urrutico ubazter  
ayetana pillaca gendia, nola nai ta batera kez-  
kic gabe.

Gainde argierazco egicorrakin icurazitzenda zer fidandezco gizonac izan litezken gizon oyec.

Ustecabean catibu dijoaztenen mercatari berri abec, ez dute batere cupiric gerra ta nazpillez betetaco lur aytara Euscaldun gende zucenac eramateco kezcaric gabe, zecorrac arategira bezela.

Beren edo besteren diruba jaso ezkeru, ezdiote ezergatic ajolic.

Orrengatic nai genduke biotz biotzetie Euscaldun ta Napar, lau probintzitaco erri guztiac aditzia gure egiazco itza.

Naigenduke gure anai maiteari adierazo, ondo barrundutzeco, zernegargarriadan Ameriketara jun bearreco seta gaizto ori: eta zer eruac izaten diran engafiatzalle conzientzi bagecoen esan zoroac zinizten dituztenac, ecarri-ric berentzat naidutelaco, egiazco zorigaiztoa, bizitza zorionecoaren orde.

Amerikotan gure icusi ditugun bear ta premi-iac; gure erritarraren penac ta sufrimentuac; lur aytaco bizimoduaren degun ezague-  
ra; gure nai biziya erautzitzeco iduritzia okerren ecarrai tristeac; ango esagileric ez dutenen ametz choroekin berotutaco burubac ostutzeco eta bide zintzora ecartzeco, astu aziric gizon erozlien itz legunac; eta itz batian bucatzeco, gure naitasun aundia gure jayot lur euscaldun erri guztiari, gauzabec guztiac arreragitzen digute luma escubetan.

Uzte aundian gaude, zalantzan jun edo ez jun indarrian buleatubac bezela itzaz alde aietara dauden gande guztiac, utzico lutekela beren asmoa ta damaturic ontziyan zartuta, egun guchi barru leorreratuco hirakela albaluteke.

Bañan ez gaitezen aurreratu geyegi batian. Banaca banaca esantzazkigun zenbat estuasun gogor pasatzen dituztengende abec echetic alde egiten duten egunetic, utziric beren guraso, lagun eta aidiac, icusi degun bezela Bordelera alleatuta an gabarretan zartzeco pillan nazte, gison, cofre aundiac ta ganadubac bidean mantentzeco biar ditaztenac guztiac batian.

Guazen moduban, Ameriketara joaten diranen bizibidea gelditucoda berago, necazariac beren lanetan ibiltzen dituzten ganaduen izaerara baño.

Gañera comeni da adirazitzia irureun Chillerazijoazten gazte ayeri, ontzico burubac edo capitanaac gogor egin ziotela ucaturic Montebideon leorreratzea.

Baita ere orain dala illabete, ez bagera gaizki conturatzen, napar gazte bat Bordelen ontziyan sartu eta damaturic ateranaian, inolaco moduz etzioten utzi leorreratzen.

Eta abec guziac guchi balirake bezela, iracurri bezteric ez da zer gauza icaragarria gertatudaun ontzi aundi «*La Ville de Marseille*» deritzayonean.

Ontziyan ere ibiltzenda gendia pillaca era-



maten Marsellatic Buenos Aires-etara, eta urte ontan bertan Mayatzean, irugarren claseco to-tokietan zijoazten guztiac alchatu ziran capi-tanaren ta mariñelen contra ezeu artian arra-patzen zituzten gauza guztiekin, burrucaturic alaco eran, nun gelditu ziran illac español bat eta beste frantzez bat, ta gañera oso gaizki eritubat capitana bera eta zazpi italiano.

¿Zergatic alcha ziran orren gogor ta gisa ortan?

Janari charra ta escasa ematen ziotelaco.

Bañan ori aski ez balitz bezela, menderatu zituzten gende ayec guztiac, eta escubac go-gotic loturic eraman zituzten beren bidearen bucaeraño.

Orra bada aziera gozua.

Orañ icusi zazkigun bideco bezte berriac.





---

## BIGARREN BURUA.

### Bidean.

---

¿Nola joaten dira?

Ontzi aundi oyen aldamenean zintzilik irukitzen duten escallerañ oña jartzen dutenian, aztendira Amerika zale diranen zorigaiztoco gora berac.

Banaca contaturican berriz zarreran zigorrekiñ len esan degun bezela, arcume talde baten antzian eramaten dituzte ontziyen mutur muturreraño, eta an sartzen dituzte zulo chiki batetic azpi azpian, garbitazun guchi eta aize guchiago duten lecuetan.

Gendia orrela eramaten sayatzen diran guztiac, edo aldean guztiac, izaten dute contu edo ardura ona, esateco lenendic alde guztietan, emango dizcatela dijoazenai, pagatzen duten diru engatic eman litezken gainde eta egokitazun aundienac,

Ematen dizutegu, esaten dute, batrezna edo cubierto bat bacoitzari; oya; colchoya, burucoa eta eztalkiekin; jana ugari eta ona; ardua, eta gañera botica eta medicua doaric.

Icusi zagun orain zertan gelditzen diran gauza abec.

Batrezna edo cubiertoa da cochare ta euslea edo tenedore zirraizcoac, plater ta charro char batzuec, biyac ojalatazcoac. Oya berriz, trapu puzcabat zintzilic nun arkintzendan laztaira cazcar gogor bat; burukiare laztocoa eta eztalki bat ain ariña eta zuloz betia, nundic aizia ederki artuleiken aizeric balitz zulo azpi ayetan.

¿Eta jana? Janaren gatic, icusi degun bezela, makiña bat bider azerretuta alcha dira ontzi contutzallien contra.

¿Eta ardua? ¡A! Ardo arrec izaten duben naztutasuna inore eziñ lezake ezagutu, eta salduco balitz ardo lecuren batian, zaltzallia pozoitun edarien emantzalle baten gizan izango litzake castigatua. Medicuen laguntza..... ez degu ezerere esan bearric gauza ortzaz, zergatic jakiña da nolacoac izaten diran debaldeco lanac. Juan Debalde ill zala esaten dute, eta egiya izangoda. Sarrerazitzen dituzten lecu ayec, izango dute lau cana ezcasbetic gora, eta an jartzen dira bata beztien gainca armarioco apalac bezela, iruna catre alde bacuitzian, erachiac edo lotuac zigorcho batzuberi eri daudenac edo mintzubaec ospitalera eramateco

oatzechoac balira bezela; eta nola azpicoa dagon lurretic geyenaz amar zentimetro gorago, eta batetic beztera nola geldituzendan tar-techo bat, goi aldeco catriac iya goya jotzen dute.

Oi pillaben artian, aiñ bido eztuba gelditzen da, non pasa ezin dan persona bat aldezca bezteric.

Echol abetan egoten dira nastuan, chiki, aundi, zar ta gazte; eta olezco ataurca batekiñ bacarrie, apartatubac emacumeac, burtinen ordez irriñarteac dituztela, nundie gizon lotzagabeac geyenetan begiratzen duten. Eta nola esan leiken, baztar bat arkitzen ez dala bacoitzac bere garbitasuna egitico, denen artian jartzen dute lecubura cherri toki bat baño okerrago, zikintasun guzti arren bidez sorturican casta guztitaco bizi lagun berriac. Ezker-rac bai orrenbesteco jan escasi ta charreco lecuban, arnasa artzeco aizerik gabe, zikiñ tartian eta beste aben antzeco alderdietan, ezker-rac esaten degu galtzen ez badu batec bere sasoi oneco osasun ederra eta indarrac.

Bata ta beztea bidean galtzen dituenac ja zer doacabeat

Orduban ez da gaitz gau illunen batian gende ura guztiya conturatzia, erruberac soñuric ez dutela egiten, eta ontziya, bat batian gelditzen dala eziñ aditzera emanic iñore gauza berri arren eracaya, eta zalantz estugarri artan galdetzeracoan zer gertatzen dan, ayen belar-

riac aitzen dute putzura arri aundi bat botatzian bezelaco colpe baten soñu icaragarri bat ontziyaren aldamenean, eta jakiten dutenian beretaco batec arkitu dubela obia itzaz aundi arren onduan errico lur Santuaren ordez, damutasun gogorra jartzen zayote beren biotzetan artu duten echetic ateratzeco grina charragatic.

¿Baña noiz?

Ezin atzera egin dutenian.

On aldera jarriric, gogoan artuzagun geyen geyenac bucatzen dutela daramaten bidea osasun onarekiñ eta beren indarrac galdu gabe; ala ere gertatulitezke bitartian tropeliac denbora guchi dala paper egunoroaco esan dituzten gizacoac, arturic bezte paper *Buenos Aires*-eco *La Reconquista* deritzayonetie.

Orra bada zer iracurridan Ameriketaco paper ortan: «Ezingo degu ishillican pasa itzaz aldeco agintarien jakinian jarri gabe gogotic estu artuderazaten. *Nimberg* ontzico burua edo capitana, zeñec aski ez bazuben bezela seireun ta ogei pasacaitar doacabeac gosiac ill ziarekiñ, izandu zuben icaragarrizco ausardi itzuzia aginduric mariñelai irikitzeo ur irakiñezco uponpac erretzeo gendia, zergatic escatuzion arrazoi onetic legez biartzuten gauza, eta ueaturic asi ziran berriro escatzen zerbait indarrian. Cupidic gabeco buru edo capitana onen biotza etzan batero mugitu naiz icusi zorigaiztoco gende ayen arpegiac.



Eta orain galdea egin biardegu: ¿Emendic  
dijozten gazte oyc zer egiten dute lur aye-  
tan oña jartzian? ¿Zertan sayatzen dira?  
Erantzungo degu aurrerago.



---

## IRUGARREN BURUA.

---

### ANGO ELEAREN EDO GANADUAREN ONDIA.

---

Bucatu degu lengo burua galdeturic, emendic dijoazenac an leorreratzen diranean ¿zer egiten dute? ¿zertará sayatzen dira?

Bi galdeera dira abec zein bañan zeñ contuz eranzutecoago.

Orain lecu ayetan sortu diran nazpillac bañan lenago, lau gauzetan sayatu zitekean an Euscal erri maiteco semia, ondo lau egiñic diru mordoshea bat biltzeco eran.

Gauza abec ziran; elearen ondia edo ganaduen aztea, lurra landagotzea, ploi lana edo echieta serbitzea.

Icusizaskigun geldiro zer gizatan dauden gaurco egunian laneco era abec.

*Rio de la Plata*-n ondi bacarra lenago zan ganaduen contu ori, ez dago orain orduban beziñ giza onian.

Orain arkitzen da era batian, nola egongo zan España ainbeste gizon galduric iracur garrizco gerra moroakin izan zanean; zergatic eziñ gogoan idukiric bezte gauzic ez bada zaitiraunditzia artuzutena, zabal dutzen zan gendia lur irabazi guzti ayetan eta sayatzen ziran, beste lanetan eziñ zutelaco, bizi bide batian, onec betetzen zituelaco ayen biarric lenenac denbora ayetan.

Arrazoi onengatic azi zan orduban Españian aunditzen elearen ondia.

Madrilco maisu jakintzu batec esaten zuben bezela, au izaten da erri atzeratuac daudenen lenbizico eta azkeneco banernea edo egitea.

Eta Ameriketaco Plata ortan ¿zer egite ote da ori? ¿Aurrenecoa edo azkenecoa?

Gañera ez balego ero giza ortan ¿zer izaera dauca gordia aurreragoco? Icusizagun.

Orain irurogei ta amabi urte dala, indarrarian jarrizan bilguma *Buenos Aires*-etan berac emantzuben ojubekiñ, egiñic ojubura Rio de la Plata-n Espaniyaren contra, ala Errepublikca Argentinacoac nola Montebideoc edo Errepublikca Oriental Uruguaycoac. Ordutic lecu ayec izan du dira nazpilla char batzuec, eta maiz alcarri elduric eta odola gogotic ishuriric dirandonkitasundenac alde egiñic, lurperatzen dira zerbait egiteco giza onac galdu ta eziñ geruago jasoric bacoitzac ontasun biarrac. Eta bide oker abetan galtzen dute geyago ganadu buru geyenac dituztenac.

Lecu ondo jarri edo aurreratubac daudene-  
tan, tropac arkitzen dituzte jakiac, erosita, gi-  
sa oncan, inori okerric ecarri gabe.

Bañan Ameriketan, bacoitza bere alde ibil-  
tzendan lurretan, ez dira beste gauzez oroitzen  
baizic dijoazten alde guztietan naidutena edo  
aldutena ostutzia, eta nola maiz gertatzen di-  
ran nazpill abec zergatican segurantziric ez  
dagon gabetic goizera, gertatzenda arratz ba-  
tian, bi milla ganadu buru dituztenac urrengo  
goizian arkitzea anbat erdiyarekin edo larru  
gorrian.

Soldadubac inguratzen dira canpoco eche  
batera eta bill azitzen dituzte banacatubac da-  
biltzan ganadubac eta bereganaturic beren  
cutizi onenecuc, eramaten dituzte gogorrian  
berac mantentzeco biarduten bañan ascozas  
geyago, besteren bizcar dalaco.

Eta ori zerbait echeari uzten diotenian, zer-  
gatic beste ascotan batere cupidic gabe ar-  
tzen dituzte berekin daudenguziac arrazoi es-  
casac emanic eta bestietan itzic egin gabe, eta  
juten dira...? Nora? Ez da beriala jakiten, ba-  
ñan andic denbora pushcabatera, icustenda  
onlaco edo alaco soldadu ayen agintari zana,  
dubela jarriya eche aundi bat edo beste len  
etzubena eta berekin ditubela millaca ganadu  
burubac.

Eta orain esanazute? Orlaco gauzac gabetic  
goizera gertatzendiran lurretan: orlaco lecu-  
betan nun aragiya gazitzeco eche aundiac

aspaldian gelditubac dauden; nun errico gendia guchitzen dijuan eta ainbeste guchitudan azaldirican Uruguay aldiac urtian galtzendentubela eunetatic ogeita bost. Erri oyetan nun bata bestiaen contra jarririe dauden galdurico oso ganaduen ondia icusidegun beziñ orrez gañera ori ez bada, neguco eudiyac ill azitzen dituztela eun millaca eta bestietan legorte aundiyac aín icaragarriac dirala (1879 garren urteco ibilkidetan iltzontziran ganadu burubac lurrac ematen zioten mifi pozoi batekiñ) eta legorrac alde egiñ azitzen diotela urrutira ur bearrean izanic gañera urtiac euntic amar buru faltatzen diranac ;zer diruba egiteco aldia arkitulezake emendic juten dan seme euscaldun gizarajoac? Ango gobernuac ezdute casoric egiñ gauzabec zuzentzeco eta ez da oro beste banacaco bici bideona dutenac, eta guztiya arkitzenda gernago ta okerrago.

Batzubec, beren lurraren maitetasunez edo irabazi naiaren indarrez obekiago jartzeco ustean, alegiñac egiñ zituzten baña prochuba baño naikida geyagoizan zan. Erriayec daude gaurco egunian estuasun aundietan. Ori gauza jakiña da.

Artzayen bizimodua izanic orainsaño angobearrentzat diñaco bacarra, bádiruri ere bucatzen dijoala.

Orra zer iracurtzendan angopaper egunoroco batian; «Gure canpo azpiratu eta galdunba arkituric denbora guchiz onontz ainbeste



calterekin orain artudu ezan liteke azken col-  
pis. Bacana izango da emengo gizon abera-  
tzen artean lengo udan icusi ez dubena egun  
batian eta bestian ondatzen oso dituben gana-  
du burubac, ainbeste lan neke ta escasiya pa-  
saric bildutaco dirubarekiñ erosiya eta inun-  
dic ere erremedioric arkitu eziñic. Beste asco  
ere orla zorigaiztoan icusi ez diranac, eta zer-  
bait dutenac arkitzen dira larrubac galduco  
ezdituzten esperantza bacarrekiñ icusiric bes-  
te gauzic eziñ izan lezatekela.

¡Zez galmendeco ichura tristea, esatendu,  
daucan gure canpo premiatuac!

Lentzuben alaitasunac, ontasun jabiac go-  
gotic lan egiteco zuten descoac, guztiac alde  
egin dute. Batzube beldurtu eta bestiac etzi  
dutelaco.

Ez da gaurco egunian icusten lecu aec iga-  
rotzean lengo bizitazun pozgarri ura. Lengo  
belardi ederren orde eta lore chiki politen bi-  
dez lecu igartu ayetan bacarric azaltzenda  
baten begietara, lengo udatic onera, ganadu-  
ben ezur puzcac, egazti arrapsalariac eta za-  
currac malazecatubac.

Aiñ da icaragarriya ango izaera, litzake-  
la nai gure luna bañon ascozaz obiagoa  
adierazotzeco biardan bezola.

Mingarria eta negargarria da ango egiazco  
gertaerac aitzia. Izandu dira gendiac golditu-  
diranac canpo utsarekiñ galdu dituztelaco de-  
nac azkoneco ganadu bururaño.»



Eta au esatentzuten oraiñ dala iru urte, eta ordutic onera okerrago arkitzenda.

Beste gauza ascoren artian oroitzen gera nola Uruguay aldeco «Cerro-largo» deitzen dioten lecuban, iltziran egualdi charrengatic berreun milla ganadu egun guchiyan.

Ontaz gañera icustonda errico echien errentac asco jechi dirala eta okerguzti abec eracusten dute guc esaten deguna egia dan edo ez.

Esaguturic bada ganadubekin ondatu egiten dala gendia, artu dute oraiñ asmua achurkintzan sayatzecua.

Icusten danian gauza batec ucatu egiten dubela arrasoya da beste batian gogua jartzia.

Bañan oriero beti ezin egiñ liteke, zergatic ez dira nai bezela ecartzen truca bide abetan galdutzen diranac eta ganadu azitziac achurkintzekiñ biyac batian anbat jasoco luteke galdutaco zoriona, emango baluteke arzan tzac len ematentzuben aña, bañan ortaraco biarlirake zabaldu asco, ciricaturic necazariyac eta ganadu jabeac, eta gobernubac lege zintzoekiñ laguntza emanic, edo jarriric errez tazun aundiyac batetic bestera eramateco eta irabazi bide onac izateco.

Pacifico-co Errepublikac deitzen zayenetan ganadu ondiac etzuben izan, ez du eta ez izan gore ainbeste balio nola Plata-n. Alare Chile-c eramatendu Peru-ra zerbait ganadu gizentzeco, lenendic lodituric belar antzecoetan. Ba.

ñan nola escu guchien artian dagon ondian, irabazi bide ezcasa ematen dio emengo semeari.

Ganadua alde batera utzi ta batec naibaluke arzantzan azi besteren taldiyari contu arturic parte chiki bat izanic nagusiyekin, gaurco egunian eziñ liteke ori ere egiñ, zergatic canpo aundiac ichi dituzten alanbriekin, eta len jardunic gizon asco 'ardiyac gordetzen, oraiñ modu berri orrengatic ez daude nagusiyac orremeste genderen biarrian.

Icusten dan bezela bada, ango onditasun onena eta aundiena, emengogendeari sayatze-co hidearekin prochu geyenic ematen ziyona, gaurco egunian dago guchi gora bera illa.

Jakiñ zazkigun orain beste alderdiyac.

---

## LAUGARRREN BURUA.

---

### ACHURKINTZA.

---

Lengo irugarren buruchoan esan ditugun egi gogorrakin, ez degu uste arkitucodala inor aín chororic non egitecobat artu eta denbora mochedo luze barru, galduco duben egindacoa eta diruric geyena edo guztia.

Orra bada, ganadu contubori chartzat utzi ta nai badu batec sayatu achurkintzan ¿zer gizacuac daude Ameriketaco canpo landu gabeco ayec?

Izanic achurkintza gauzie sendoena erriyac bizibide ona eramateco, alaere landago biarrenau dago bere aziyeran. Ameriketaco lurretan, ezin aurreraturican dakigun bezela urte ascotan, eta secular ere ez orain daramaten eran badijuaz, Gobernuac, bilgumac, egunoroco paperac eta beste agintari ascoc, egun

batian ta bestian gogotic aditzera ematen ari dira beti, achurkinkaraco ez dala inon an bezelaco lecuric.

Bañan gu, emengo gende gure anai maitien onian, arkitzen gera bear aundiyan esateco itz guchirekiñ soñu ayec guztiyac ez dirala berri-keta batzubeac beizic, ezbadira zabaldubac emengo choruen bizcar, ayec an beria egiteco naikidan.

Adirazitzera eman zagun zintzo gauzan.

¿Nori burutaratuco zayo izan leikela achurkintzaraco lecu ona, legorti aundien bidez canpo guztiya zulatzendana eta belarra igarturic, abere guziac alde egiten dutena?

Ori gertatzen da bada ango lur berdiñetan. ¿Lurrac zerbait eman lezake eudiyan premiyan eta aen ordaintzan urpaldiac jarriyac ez dauden tokiyan?

¿Izan aleike achurkintzaric bide cashcar bat ez dan lecubetan?

¿Gogoric emango dute lanian sayatzeco toki bacartar ayec, edozeinen mende geldintzen diranac, uzteic guchiyanian purracaturic edo eramanic nai dubenac gogoac ematen dion guztia inoren beldur gabe, zergatic ez dan arkitzen agintarien izenian inor gordetzeco?

Bañan guazen pishcaca.

Icaragarrizco legorteac izaten diran erri guztietan Ameriketaco lur ayetan bezela, egiten dira alegiñ guztiaac jartzeco urjoaldiac edo guchienaz erretenac edo urlideac itzaltzeco





bero aundietaco illetan ereingarriac izaten duten egarriya.

Plata-co Errepublikac beren izaerez lirake chit onac izateco urjoaldiric ugariyen eta ede-renac.

Lur ayec alde guztietatic ibaiz inguratubac eta aldapa chikiyac dituztela *panpetatic* can-pora, azaltzendira errezenac orrelaco urbi-deac egiteco, eta alare ez dira arkitzen.

Icusizazkigun orain beste ibill bideac.

Artzen dubenac escubetan lecu ayetaco zia-zalde edo mapa bat eta icusirie an señaipetu-bac bide aundi, chiki eta auzo bideac, emen-go lenbizico, bigarren eta irugarren claseco bideac balira bezela, ustecodu Ameriketan ar-kitzen dirala alde guztiyac bidez josiycac Gali-ciyan Asturiasen eta gure Euscal-erriyan be-zela, baña zer engañatuba arkitucodan jaki-tian bide oyec guztiac dirala gurdiyac eta ga-nadubac canpo zabal neurtu ezin diran ayetan uztenduten arrastua bacarric.

Ez degu esan bearric zer ta zenbat izango diran ango zubiyac urbideac pasatzeco.

Zubiyen guñian ez degu ezer esan bearric, zergatic zubirican ez dan eta ez diran izanere secular. Gauza ontan, beste gauza ascoren gisan, lecu ayec daude Jaungoicucac egiñ zi-tuben bezela.

Bañan gaizki esatendegu: daude okerrago.

Gizonac beren arrokeriyan Jaungoicucac bañan obetago jarri nairic an gauzac, basoac



ebaki zituzten, kenduric lurrari arbolen bi-tartez, euriyac ecartzen diyoten gozotazuna eta indarra.

Alaere guazen zubiyetara: eziñ liteken con-tuba, zubiric ez dan tokiyan.

No la zubiric ez dan, gertatzenda ibayac eta urbideac pasatzen dirala aldan moduban noiz eta nundic alditekean. Egiya esateco agertu biardegu lecu banaca batzubetan izaten dira la chalupa chatar batzubeac batetic bestera juateco, baña abec beiñ bañogeyagotan izatendute bucaera tristea ascotan izendatutaco olzubi batec bezelacoa.

Gauzac eramateco bide abetan ibiltzen diran gurdiyac, izaten dira arrastatubac iru, lau, edo bost uztarri idi aundirekin, bide aieri edo ganaduben indarrari, dagokion modura, bañan beñere ez dute guztiyen artian eramaten pisu bat emengo uztarri on batec diñacoa.

Iru uztarri baño guchiyagorekin secular ezdute eramaten, eta ez da zalla neguban arkitzia bidien erdiyan dozen erdibat gurdi gel-ditubac ganadubac illic otzez ta gosiac. Au, batero contuban artugabe zenbat idi itotzen dira neguban ibaiyak aunditzen diranian, edo udan eguzki gogarrarekin erretzen dirac nac asnasic ezin arturic!

Zorigaiztoan gure anai American arkitzen diran doacabeentzat, badira an lecubac auzo lagun bagecoac, nun Indiyoko biotz/gabeak egin litzateken noiz nai Oran-en denbora guchi

dala egin dituzten eriotzac español tristea-  
kiñ.

Onec esagutzera ematendu ez dala an so-  
seguz bizitzeco moduric. Eriyotzac izaten dira  
maiz ta icaragarriyac, eta ango agintari bat  
edo besteren tropeliac izutzen dute.

Baña utzi zazkigun gauza abec, aurrerago  
beren gañean luze mintzatzeco, eta icusi  
zagun orañ zer gertaleikcan lur ayetan emen-  
dic dijuazten gayenac gelditzen diran lecu-  
betan.

Ez degu guc ezer esanbiarric begien aurrian  
jartzeco Errepublica Oriental Uruguaiuca zer  
modutan dagoen, zergatic idurituco litzaken  
geyegizco charrian aurkeztatzen degula ango  
guztiya, gendiari ara juteco gogna kentzia  
gatic. Orrengatic utzi zayogun lan au bertaco  
bati eta icusico degu osotiro ango jendeac no-  
la bizi diran.

Ango semiau da, Eracusle guztiyen buru eta  
contuartzallea. Izenez On José Pedro Varela;  
bere erritar guztien artian zan oso maitatuba  
eta errespetatuba, bada jaun au iltzan. *Icas-*  
*tearen legeac* izena duben bere liburu Monte-  
bideo-n 1876<sup>co</sup> urtian azalduzanac esatendu  
39 garren orrierdian, ango erritarrarengañian:  
«Emilio Romero jaun eracusleco bilguma-  
coac, escutitz eder batian gauz abengatic  
esatentzuben: «Contuban jarrico dizut beste  
gortaera bat, esagutzeco zer guchi dan gure  
erritarrac egin dezateketena. *Estanciyan* edo

ganadu echian, bazan ardi lecucho bat Italiac langille zintzo batec ondo contu egiten ziona. Bere taldia zan onduona zaituba eta prochuobia ematen zubena. Naico esnia zuben beti eta baitare apar ederra. Baratzacho bat ere ongi jarrizuben eta ematen zizcan nere biziyan icusi ditutan frutuic ederrenac. Oroitzen naiz icusi nitubela (eta oz det geyegi osaten) tipula batzubez, banaca betetzen zutenac bacuitzac zazpi lodicatzaco plater bat. Aldameneco bizi lagun guztiyac juten ziran maiz arrengana, zergatic ango baserritarrari gustatzen zayon besteren bizcar gauza gozuac jatia. Batzubetan erosten zizcaten patatac, bestietan azac edo beste berazkiac eta geyenetan ostu egiten zizcaten. Inor etzan arren parian lanian jartzeco gauza.

Gertaera au (diyo Varela jaunac) ezta bacarra. Ibiltzen dira lecu abetan leguac eta leguac arkituric bacarrican noizic bein chabolaren bat, arbolic loreric eta landare bat inguruban gabe.»

Icusiric onelaco egiazco gauza tristia ezgenduke ezer geyago esan biarric, zergatic aski ta geyegiere bada au.

Bañan alditugun adiratzi guztiac emateco degun naikidaç, jardun azitzen gaitu gauza ontaz mintzatzen naiz iduritzian bearric izan ez.

Canelones deitzen dioten aldiac ditu 4.752 kilometro cuadratubac eta orain dala bi urte bizi ziran an 40.000 persona. Españian, Pon-

tebedraco probinciyac ditu 4.504 kilometro lau aldetara, eta 1860-an aterataco contubanzita ben 440.259 persona. Modu ortan ere Arabaco probinziyac ditu 3.122 kilometro cuadratu edo lau aldietara eta 97.934 persona 1850<sup>co</sup> urtian aterataco contura. Onec esan naidu, izanic Pontebedraco probinziya guchi gora bera aunditazunian Ameriketaco Canelones bezelacoa, ditugula emen amaica bider gende geyaco ango lecu zabal artan baño: eta Arabaco Probinziyan izanic iru aldiz chikiyago ura baño, dagola bizitzen an alaco bi jende.

Ala, desegokitazun aundia dago andic onera, gure probinziyaren alde.

Uruguaico Errepublica Orientalac ditu aunditazunian 186.920 kilometro cuadratubac, eta an bizi diran gendiac ez dira geyenaz 350.000 baizic izango. Eta Españian 507.036 kilometro cuadratubetan, dira 16 milloi terdi persona. Onec eracusten du bada ondo, emen iru bider aundiyago dan lecuban bizi gerala ogeita amabi aldiz jende geyago.

Baňan oraíndic ango lecu geyenetan gendien escasiya aundiyagea da, zergatic contubantera biarda gende aben bostgarren partia bizidala sartuba lecu ayetaco erri buruban. ¡Erri desegokiya gorputzaren irutic bat burua duena! Eta ezda goguan artugabe pasa biar gorputz cashcar orren buru neurcaltzac, bereganatzen ditubela bostetic lau parteren salduerosi eta irabazkide guztiac.



Bañan utzi zagun au eta bildu gaitezen berriro, landetan dagoen badatasunora. Agintarien laguntzaz dan, esan ditugun-gauzetatic ezagutu liteke. Orrengatic esan leiteke laguntza au bere zimenduan ez dala egiya.

Eta icusico degu zergatic.

Emendic dijuana jartzenda an alduben bezela eta doi doi nai duben eran. Buru erritic canpuan gelditzen bada, bere biziya dauca zalantzan, zergatic nola gende guchi arkitzen dan, gogorra egiten zayote beren boltsillutic pagatzia biardiran agintarien ordecoac ayeri contu artzeco, eta nayago dute geyenetan ez batera zaitzallenic iduki. Abec izaten dira guchi eta ez ere egokienac, izanic geyenac iracurtzen eta izcribatzen ondo ez dakitenac.

Eta abengatic esaten dana esan liteke beste Ameriketaco contu artzalle guziengatic. Baccaric Chile eta Brasi-lec dituzte ontaraco genderic egokienac, bañan eztaere nai bezelacoric.

Aurrerago iz egingo degu gauz onen ganiian.

Orra orain zer izan lezaken emendic dijoanac Uruguaico gobernubaren aldetic.

Asmuasco artu izan dituzte an gendia zabaltzeco gerratiakin ondatubac gelditu izan diranian lecu ayec. Bañan beti ozer egiñgabe, asmoetatic ez dira pasatu.

Orain dala lau urte gobernuac zuben gendia zabaltzecogogua eta altzuben modura an egi-



teco ustea. Ez dakigu nola, bañan bai dala Brasileco ingurubetan, erri burutic eun legua bañan geyagoco bidian, ogeita amar leguaz urrutiyago gendia bizidan aldietatic eta batere bideric ez dan lecubau, ez baldin bada lenezan degunganadu arrasto chatarren hat edo bezte.

Kz dakigu gauza aundiric onen gañian, alare geyago dakigu gobernuac zer asmorekin egingo luken au.

Gay au artu biarda lengo denboretatic.

Montevideo egontzan Brasil-en mende 1825-tic 1828-garren urte arte.

Ordutic onera Brasil-co gobernuac beren agintzeco moduarekin escastuazi dituzte poliki poliki errepublica Uruguaico lur aldiac.

Urte asco ez dala, Brasil-co alde batzubez ziran Uruguaicuac, eta emendic denbora guchira gertatucoda Errepublica orren erdiya ez bada guztiya, izangodala Brasiltarrarena.

Ango gauza guztiyac ala eracusten dute.

Lenbizi esagutzen da (bada begiyen aurrian dago) zer alcartasun guchi duten Brasilec eta Errepublica Argentina edo Buenos-Aires aldiac, eta bata bestiekin ez gogorrian astiagatic, egin zuten tratubabeste erribat, bañan chikiya ta erbala, bitarteco jartzia, baten eta beztien mende egon gabe eta au da Uruguaico Errepublica Oriental deitzen zayona. Beste biyac nola onen inguruan dauden sayatzen dira ura berenganatzeco: Brasil-ec aunditu ta Buenos Aires-en aldian jartzeco, eta bere le-

cuben erdira sarhide libria Uruguayco ibaitie izateco. Buenos Aires-ec berriz nagusi bacarra bera izateco Plataco edo zillar ibaiyan ete bezte inguru ayec gustiyetan. Beldurra diote batat beztiari, baña Brasil jakintzunago izanie, nagusitzen da gaurco egunian iya Uruguayco Errepublicaren Ipar alde guziaz, nun dituben beretaco gende asco lur ayen jabe egiñac, portuges izcuntza chit aguro bertan zabaldu dutenac ain agudo ezic bezte gauzie itz egiten ez dan. Aben semiac eramaten dira brasilco ingurura batayatzera. Ez dute beren brasilco izaera galtzen, eta hizi dira ango agintarion mende. Brasil-en eta Buenos Aires-en artean gerra sortzen dan egunian, (eta ori gertatucoda zergatic lendie eziñ erabakitaco gauza dute Misiotaco lurretan norc agindu, eta ezdute onian lagun baten epaira utzi nai izan) Errepublica Uruguayco Ipar aldia izangoda Brasilarena.

Orra bada, nola sartudiran poliki poliki brasiltarrac lecu ayetan, aberi arpegi ematoco, eta biar bada gogor egiteco, aurrez aurre nailuteke españolac jarri, batez ere Euscaldunac, eta gisagajuac, amuba tragaturic, izango lirake gaur edo biyar Uruguayco-en eta bestien artian purracatubac.

Buenos Aires-etan azaltzen dan egunoroco paper batec esatentzuben au. «Ez gera gu bacarrac penatzen geranac icusirie denbora asco onetan zenbat gaitz egiten zayoten onera

lanian sayatzera etortzen diran gendeai, ta batez ere achurkintzara datozenai. Ezgera ez, gu bacarric egiazco itzac biardan indarrian esaten ditugunac projimoari, nairic aditzera ondo eman nola itz gosho, legun gezurtiyac aituric mercatariai, biltzen diran onera zori graiztoco gendeac geyago izan ditezen; gobernu guchi lezateken eta gogo guchiyagocoac jatzen dituzte estuasun oyetan, ezagutu gabe zer baliyo duten urrutico lecubetatic datozen gizonac beren lanarekin eta argitasunarekin onditasun guztiya zabaltzera, oeri kalte egini, egiten diotela geyago beren mendea daucaten erriyari.

Ez gera gu bacarric eracusten ditugunac gauza mingarri abec, eta zer errukigarizco izaera izango duten ur baztar abetan beren erriya utzi ta datozenac.

Argentinaco Errepublicac ditu 1.080,506 kilometro cuadratubac, eta 1.812,490 biztanle, au da, persona, 10 kilometro cuadratuco.

Lurra da Uruguaiaco-aren antzecoa lecu berdiñian, eta mendi artian gisa ascotacoa baña Andes aldian da zutsuba.

Iru parte lenendico ditu Argentinaco barrutiac, deitzen zayotenac *Sur*, edo, ego aize alde, *Centro*-erdicoa, ta *Norte*-ifar aize aldecoa.

Abetan bacoitza da bere gizacoa.

Lecuric aundiena da egoyaldecoa, Amerike-tan esagutzen dana *pampas*-en izenarekiñ. Itz

au da *Acchua-coa* edo Peruco-izcuntz indiacoa, eta esan naidu lecu berdiña. Lecu batzubecc Cordoba-n ta San Luis-co mendarocan, antzgu-chi dute *pampa*-rekiñ, bañan alare ezdira ba-tere obiac emendic dijoaztenentzat.

Icusi zagan zer diran *pampa*-c.

Dituzte *pampa* abec milloi bat eta geishiago kilometro cuadratu eta azaltzen dira gisa ascotara. Norte edo ifar aizeco iskiñan izanic lecu ostu edertsubac eta landare lur beroeta-coac, azitzen diranac, egoyaldeco beste punta arkitzen da urtoric geyenian izotz gogorrez estaliya.

Patagoniya alde ontatic azi eta Colorado izena duben ibairañu, ezda desiertu edo lecu-bacar aundi bat bezteric, nun arkitzen da noi-zic bein belarti edo ostu tarte escas bat.

An icusten dira ur gaziya, putzu tristie-tan; eta lecu ayec orlaco gisacnac dira Andes deitzen dioten mendiyen asieraraño, nun icusten diran aldapa chiki batzubecezer gabe, larru gorriyan. Patagoniya ezda baña lecu berdiñ era batecua, baizic dira celayac, esca-lleren gisan jarriyac baleude bezela, eta goye-na daguana dago 900 metro itsasoaz goitic. Nola ur escasiya izaten dan lecu ayetan, ez di-ra aski dauden erreca tristeac lur ayec goza-tzeco. Ango denboren aldakeac, bat batecuac eta gogorrac dira, lecu berdiñ aundietan ger-tatzendan bezela, eta aizien indarra izaten da icaragarri-coa.



Colorado-co ibaiyaren ifar aize aldian (esan liteke errepublicaren erdi-erdiyan) lurra da beste moduzcoa: da care antzeco gorrishta edo buztinezcoa.

An asten dira *pampa-c* ibairic gabe, bañan zerbait bustiyac eudi askirekin; alaere ango osto ta belarrac azaltzendirá soiltasuna beziñ antz bateco ta tristeac.

Lur guziya berdia, bañan ez da icusten arbol bat, ez aundi ta ez chikiric ere, nonda ez dan *ombú* deitzen diotena, batere jantzi gabe eta zuzen zuzenic bere burua noizic bein azaltzenduena canpo zabal ayetan. Lurrac diruri bada berdiñian itsas-gaña: ez da ere arkitzen arcaitz edo arri bat.

Bañan len esan degu ez dirala *pampa* guztiac modu batecoac. Goico aldietan ugari dira arbolac, ez biziro aundiyac eta ez chikiyac ere, bañan lurra jeizten dijoan bezela, arbolac ere bacantzen dira eta itsaz bazterrera inguratu ezkeru, bacarric topatzen dira cardaberac eta beste baratz landareac euriyagaz bustita indartuac.

Uda berrico beroac aci-erazitzendituzte landare oyec arrigarrizco moduban, bañan gero udaco bero erregarriyac, igartzen dituzte.

Ifar aldian pampac dira oso beste gizacoac. An osto lecu gerizdunac azaltzen dira ederrago.

Gauz oco gustiyac contuan arturic, arkitzen degu Errepublica ontacolurraren eremai-



tzac dirala Uruguaycoac antz berecoac baña ayec baño aberatsagoac.

Azucredun cañaberaren landaketan sayatzen asten dira, argentinaco amairu probintziatic lautan. Landaketa onec truca azico ditu angu irabazi bideac, bada libratuco ditu sei bat milloi duro estranjerira ematetic urtero azukre eta edari espirituac gatic. Gaurco egunian asi ta beste gabe dago landaketa au, eta du zaillazun bat zergatic ortaraco lur egokiyena da Chaco-cua, argentinaco aldiari, eta contra egiten diyo Paraguay-c. izen ontaco ibaitic gauza guztiyac erraz eramana.

Oraindic bacarric landatzenda Tucuman Coorrientes deitzen dioten probintziyetan. Gezurra dirudi gaurco egunian nola denbora batian etzuten Ameriketari gariric batere ezagutzen, baña ala da. Cristobal Colon-ec Amerikac arkitubanan len etzan ezer ezagutzen gariyaren antzedoric.

1530-co urte arta, etzan gariric izan Megico-n eta orduban ere uste gabian.

Hernan Cortes-en mendeco batec, topatu zituben ale batzubeac arroz sacu batian, eta eracutzi zizcan bere nagusiyari zeñec agindu ziyon landatzeco. Gertatuzanac eracutzi ziyoten, angu lurretan erein zitekeala gariya, eta gaurco egunetan gariric onena azaltzenda Megico erri buru bertaco ingurubetan.

Megico-tic eramantzan Peru-ra.

D. Diego Chaves-en emazte Maria Escobar-

ec eramán zituben alebatzubecc Limara eta an landaturic, eman zuten guztiya bilduzuten azitaraco, gero berriro landaketa aundiyagoac egiteco.

Ecuadorco Kito deitzen dioten Iecuban, San Francisco-ren ordenaco Fraile Frai José Bixi izena zubenac, jarfi zuben lenbizico gariya, eta esaten da gari ura irukizuben charrua contuz gordetzen dutela oraindic erri artaco frailiac.

Geroztic sartuzan gariya, Norte-Americaco Ingelesac eta Holandesac ara juan ziranean.

Errepublica Argentinacoan egiten diran sa-yuac gariya eta azucria creiteco, egingo dituzte mesede aundiyac besteric ez badare ango biarrac betetzeco. 1840<sup>garren</sup> urtetico, biltzen-da, ala Rio de la Plata-n, nola Chille-n, baña ezin asmoric artu liteke aldiorrec eman leza-keala gauza octan aberastasun aundiric.

Beste denboretan Chile-c ematen ziyon Cali-forniyari eta baitaere Australiyari naiz denbora guchiyari lau libraco ogiyac, ango bost errial balio zitubenean. Alare azken urte abetan go bernu chilecuac icusi du penarekin guchitu-dala an achurkintza, lengo presiyo aundi ayec indarric ematen ezdiotelaco.

Rio de la Plata-co gariyac eman lezake ongi Santa Fé aldian, bañan nola asco costatzendan eramatia gertuena dagon portu-ra, diru geyago bear da ara eramateco, Nueva York-tic Liberpula Bordelesa eta

Bilbora baño, eta orrengatic ez dute escatzaleric.

Orien gatic beragatic orosi balitekere Errepublikan Argentina-co barrenian lurric onena berrogei duroren contuban kilometro cuadratico, an ereintaco gauzac andic eramateco bear dan diruac uzten ditu atzera. Gañera ango lana gariztiyada, bizimoduare ala dalacos, ezin dira beste lecuben pare jarri.

Ango gobernubac gañera pentzatu du jartzia gizonezco barrera bat bere lurren artian eta Patagoniyan aziyeran.

Orañ dala amasei urte zan Bahía Blanca itzaso bat nora etzan inor joaten, ez bazan ontzi bale arrapatzalle bat edo beste, eta inguruco lurretan etziran bizi arriantzale batzubece baizic.

Gero beldur guchico batzubece jun ziran bizitza Santa Cruz gaurco egunian deitzen zayon lecura, eta gerostic ezkerac ayec gorde ta laguntzeco itza emantzuben argentinaco gobernuari, biltzen azi zirala beste asco, denen artian erri aundicho bat eginic eta orrela emanic len etzuben antza.

Gobernusc nairican pagatu zituben armetaco gendeari egin zioten laguntza edo bezte zerhait, emanizcan agintari ayeri beñere icutugabeco lur ayec.

Bañan oyec orobat izutubac achurkintzaren gogortazunec edo beste moduzco biartazunec, jun dira saltzen lur ayec baliyo guchiyan, ar-

turican gogo aunditic merketazunen usaian beste gende dirudunac.

Patagoniya jotzen dauden lur oyec dituzte aldamenian Indiyoac, eta abec ematen dizcate maiz, inguruco gende alde oetaco beti gorrotatzen dituztenai an deitzen zayona *malon bat*. Itz orrec ezan naidu zartzen dirala noiz nai emendic juten diranen lurretan, eta purracatzen dutela arkitzen duten guziya, gizonetatic azi eta ganadu ta echietaraño.

Ontan Argentina-c du Chile-ren antza, orain icusico degun bezela.

Izango lirake Argelico eriotza len esan dituganen diñacoac.

¡Etorkiran ederra!

Begiratzen badegu sartaldeco urbazter aldera, Peru ta Chile-ren arteco gerra bucatu ezkerco, icusico ditigu beste gauza berri asco emigrazioren gañian.

Lenendic esango degu Peru data gendez be-tiagua Argentina baño, zergatic 1.303,700 kilometro cuadratuban dituben 2.720,735 persona, au' da, 2 persona geyago kilometro bacuitzeco. Gende au beti bizi da nazpillan edo gerretan.

Ez da oraidaño Chille-ra jun emengo, Santanderco, Asturi ta Galizico gendia; bañan orain alegiñac egiten dituzte ara eramateco gendia, eta ortaraco lecu urriti ortaco gobernuac bialdu ditu onera mercatari gezurtalari-



yac guretaco ernai ez dauden gizaishoac en-  
gañatzeco.

Orrengatic gaude gu bear bearrian aditzera  
emateco zer modutan dagon Errepublica ura,  
eta zerbait prochu atera otelezateken emengo  
erritar maiteac.

Lenbizi beñepiñ esan biardegu emendic di  
joana arkitucodala an lecugende geyagocoan.

Chile-co ditu 328.000 kilometro cuadratu, eta  
2.068,224 persona, da esatea, 63 persona 10 ki-  
lometroco, eta ori Araucania contuban arlu  
gabe.

Gauz abec guztiaac argitaratubac izandu dira  
Madrillen eguneroco paperetan eta baita ere  
andic canpoan. Gañera ango bizibidea dala,  
lo egiñ eztatperic ezdan edo iya ezdan lecube-  
tan, lau edo seicuartoco jornala; mantendu  
arto pishcabat eta seboarekin (Chilen jana  
egitenda abelgorriyaren coipearekiñ) eta ori  
ganga bat topatzen dubenian emengo semeac  
eche batian necazari jarrita, zergatic inorekin  
lanic egin nai ezbadu eta bere modu jarri  
maizter, choraturic Chile-co gobernuaren ez  
keñiekin, ichogonlezake eriotza ta lotsa.

Lotsa bereala; eriotza denbora guchi barru.

¡Bai! zergatic naiz langille premiyan egon,  
Chile-co paper eguneroco batec esaten zuben  
nayago izango zituztela beste aldetaco gen-  
diac, emengoac baño, aditzera emanic, emen-  
guac ez dutela argitazun berric eramaten

eta ezdirala ere lecu ayeri aurreracuntzaco gauzac eracusteco.

Orri erantzuten zion Madrillco Liberal ize-na duben paperac onela. «;Oraindic geyago naidute! ;Lau edo sei cuartorengatic escatzen diote gañera argitazuna ara dijozten Euscal-dun gizashoi!»

Ona omen lotsa eta mezpreza.

Ara nola ichogon lezateken eriotza.

Jakiña da Araucoc duben gendia dala iya Chile-co laugarren partiaren aña. Bada ditu 2.068,224 persons, eta Arauco-c milloi erdi bat gende indartzuba eta bere erriyari maitetasuna diyona. Edozein zerbait escolatutaco personac daki ere erritar oyec dirala gerra arteraco genderic gogorrena, secular ez dirala menderatuzat eman, gogor egiten dutela atzera-tugabo, ucetzen ez dirala gudaraco, eta galdu nai ez dutela beren maite duten mendetu ga-becco bizibidea. Jakiña da Chile-c ditubela gendeasco Araucania astendan lecuban aberi gogor egiteco, bañan ez dira beti berenakiñ aterratzen zergatic maiz ayec arpegi emanic menderatzen dituzten Chiletarrac itzuli sartu aziric beren gazteluchoetan.

Orra bada: lecu abetara eramaten dituzte zorigaiztoco Euscal-Napar mercatarien escubetan jartzen diranac.

Agintzen diote duro bat eguneco lenbizico iru illabetietan, achurkintzaraco erramientac duten baliyoa beren jornalarekin pagatze-

co an, lurrac eta ez dakigu zenbat gauza geyago.

Eta onela gelditzen dira:

Duro batec du baliyo guchi lecu ayetan, zergatic erropac, jakiyac eta biarduten guztiya pagatuco duten, beren preziyoa baño iru edo lau bider geyago.

Ango mercatariyac ez du gauza abekiñ asco irabacico, bañan ematen ditu, zergatic ez dan segurantzic (ez da astu biar bacartasunian arkitzen dirala) gausac batetic bestera eramatea asco costatzen dialaco eta bidean izaten dituzten calteac gatic.

Achurkintzaco erramientac ezin pagatuco dituzte tratuba egindaco denbora berian, ez etare mantendu beren contu iru illabeteren buruban, zergatic iñun ere ez dan arkitzen aĩn lur onic (naiz izan beñere icutu gabia) emateco ezer orren aguro, eta idurituagatic izan litekela eziñ izan litekean gauza au, eluteke arkituco zeñi saldu frutu ayec beren gogora, eta ezluteke beste bideric, edozein moduz saltzia beizic artzalle concientzi bagecoari edo lecu ayetara eramán dituzten gizon cupidic ez dutenai.

Orra ango agintzallien laguntza.

¡Doacabeac!

Au esaten degu idurituric chit gaitza dan gauza bat, nola dan araucanoac pakian uztia aldemenian azaldutaco gende berri arri, eta

contu artu bezteric ezda zer gertatucedan pakean ez uztera ezkeru.

Contuan iduki biarda Araucano, Chiletarrac igesi biraltzen dituzten abec sartueraziric gazteluchoetan, dituztela oraiñ agertzen diran fusillac *remington* deitzen diotenac, eta ez len bezela geziac edo flechac; orrengatic ez dute mundu alde ontaco (jendien eta armaren beldurric.

¿Eta zer bucaera izango luteke gauza abec emenguentzat?

Eriyotza.

Zintzo contuban artu ezkeru gauza abec, pentsatu liteke gaitzau bañan lenago gerta litekela beste bat.

Iru illabetiac pasa ezkeru Euscaldungaizoac, (zergatic erri euscaldun bat izan goda orduban aldi ura) arkituco dira araucanu oyen onduran beren escubetan erortzeco gizan, eta Chile-co gobernuekin dituzten bear edo eginpideac eziñ bear bezela egiñic.

¿Zer egingo du orduban gobernuac?

Ez dakigu.

Bañan gertaliteke esango deguna.

Chile ta Peruco gerra dala bide, Chile nagusituda lecu soill zabal Atacamaco guztiyaz; onec dauca ipar aldian Peruco Tarapaca-co provinziya, bere gatzugan eta choriziriñeu sort le cubakiñ.

Sort lecu ayec zecazkiten len irabaz bidean



Peru-tarrac eta beste aldetaco jendiac, zeñec biartzen ziran Chinoaz beren lanotaraco.

Chino abec eraman dituzte gerrara, eta lan ayec gelditubac arkitzen dira Chile-co gobernuaren mendian.

Eta ¿gobernuac jarrico ditu Euscaldunac lan abetan icusiric len ezin osatu zituztela beren bearrac araucaniaco ingurubetan?

¡Nore daki!

Eta ¿zer izango dira bacartasuneco lecu icaragarri ayetan bizitzeco bainande odo condicioac?

Dirubaren contu ori Araucani aldian bezela.

Osasunari dagokiyona, esango degu beste burucho batean, bañan aurretic aditzera eman genezake dala charren eta gaitz ecargarriyonetacoa.

Gertaera ontan icusi liteke zer nolacoa dan ango gobernuac bere gisa achurkintzan sayatzen danari, ematen dion laguntza.

1878-co urtian sayatzen ziran Chile n landatzen tabacoa edo erretzeco belarra, eta nola eragotzi zuben gobernuac bere contu bacarric egin zitekealaco, gobernuaren agintariyac purrucatu zituzten bederatzireun milla landare belar oyenac.

¡Laguntza.... icusgarriya!

Orra bada, orain ez egoleco ustian dan baño gayago esaten degula, esatean euscaldunen izaera nolacua gerta litekean Traigaen, Arau-

caniaco ibarretan, aditu zagun zer eracusten duben paper Euscaldun Plata-n argitaratzen danac. Esatendu: «naiz Chile-co mercataria ac abo betian jardun beren lurraz, esanic ugari omaten dutela, eziñ zinizta degu Euscalerrico semeac izanlezatekela prochu aundiric beren mendi tarte ederrac utzi ta jutiekiñ urrutico lecubetara, nun jornalac diran beren aldietan baña chikiago, mantenu charra langillearentzat, eta hizi modua ez batere jayoterricoaren antzecoa.»

Gero aurrerago diyo gañera:

«... An, baso bucaeric ezduten ayetan, erriyetic urruti, urrutiyago oraindic beren biziyac escudatzeco aldietatic, arkituco dira estutuac eta larrituac, ez bacarric Araucanuaren suminduen gecia edo flechac gatic, baizic baita ere puñal edo ucabizi eta lantzagatic, zergatic idurituco zayon euscaldun maizter bacuitza dala arc bereganatu biar zituben gauzaren kentzallia, bizidian bezela dirala beren ustian lecu guztiyarren jabe: eta euscaldunac icusten dutenian Araucanoac gañera datoze la, arkituco dira suarmic eta beste gauzie ez dutela beren burubac escudatzeco, zergatic Chile-co gobernuac debeatzendioten edukitzia.»

Eta bucatzendu Plata-co paper orrec bere izcribua galde abekiñ.

«¿Gogoan artuda nola saldu bidean jarri euscaldunen irabazi edo frutuac? ¿Besteric ez

bada ere izan liteke esperantza au, bidoac iriki eta necazariac berac ereintacoac eraman litzakeala zerbait irabazirekin salduco lituken locura?»

Gauza abetaz ondo conturatzeco eta zer izaera aurrerago izan lezateken emendic Traigen lecuba betetzera dijoaztenac ezagutzeco, ezerez obiago, an bertacobaten itzac diralaric, nola Chile-co diputadu Francisco Puelma Tupper ec ango bilguma aundi batian 1883-co illbeltzaren seyan esan zubena baño.

An euscaldun erri bat izateco asmoaren gañian, esantzuben beste gauza geyagoren artean: «aizetorkian edo otz beroetan berdintasuna, da arrazoi lenendicostacoa, bañan zorigaiztoco izaera Bizcaico lecu bero aldeco gendientzat, da Arauco-n izan lezakeana, bada izanic au ain lecu otza, seguru esan liteko euntatic larogei ta amar pechutic ilco dirala.

Aiñ antz guchi du lecu batec besteakin.

Orañ Chile-ren gañian esan ditugun guztiyac biltzeco bezela, iracurri zazkigun ango buru erritic iscribatzen dituzten gauza batzubeac argitaraturic Buenos Aires-etaco *Correo Español* deitzen dioten egunoroco paperac.

Onela diyo:

«Icusten det Espanicoeta Plataco paperetan Chile-raco gendebiltzen dabilzanac, zabaltzen dituztela gure erritarren artian papercho batzubeac, aditzera eman nairic Chile dala Californiya baña zerbait geyago, izanic oso beste

aldera, eracutzico degun bezela. Munduco atzeratubac ez dauden lecubetan, inon ez dago jende langillia an bañan okerrago.

Agintariac ez dute begiratzen, zorigaiztoco escasiyan daguanai ogiya erozteracuan, ematen dioten biar aña, edo libra baten ordez ematen dioten liberdiya edo geyenaz iru laurden: eztare cana bat oyalen ordez, laurden bat guchiyago.

Sortzen bada gaitz eranzicorren bat, biral-tzen dute bat lazaretoaren izena ematen dioten eztalpe zacar batera, zein izaten dan campo Santuaren atariya. Izpiritudun erarien bat erosten badu, etzayote ajolic Chile-co agintariac ematen badiote ere erari pozoitu bat zentzuba galduerazico diona, edo beste mundura eramango dubena urrengo egunian. Gauzabetan ez dira sartzen emengo gizon agiricoac, eta paper moldizkiratubac ezin dute laguntzic jarri eta iz bat ere esan, zergatic beracdiotenez ez dakite zerdan ori, eta ez diraere izandu izcribatzalliac gauza oyec guztiac gertatzen diran lecubetan.

¿Zenbatez obiago izango litzake beste alde-taco gendiari deitzen jardutia baño, sayatzia erriyaren izaera eracusten, duten oker oyec zucentzeco?

Gauza onen bidez icusiliteke Chile-n zer contu ateratzendan eta batezere Errepublicaco buruban.

Erriyontan daude jarriyac larogei ta iru



eche diru emantzalliac erropac eta gauza zillar ta urrezcoaren truc.

Abetara etortzen dira bata bestiekin egunoro eun gauza bai, guchi gora bera duro bat balio dubela bacuitzac, nundie icustendan badirala emen zortzireun langille egunoro arkitzen diranac diru escasiyan, zerbait eche oyetara eramatearen biarrian.

Orain contuba atera bezteric ez da zer gisatan egongo diran, zergatic eramantaco gauza abec ez det uste nic izango dirala jende diruba dubonenac, baizic beste escasagoco edo laugilleen artecoac. Esantzazute orain arrazoiric detan edo ez esateco Chile-n dala langillearen izaeric okerrena.

Eta au gertatzen bada Errepublikaren buruban an bizi dalaric jenderic aberatzona, uste det ere beste lecubetan gertataco dala bezte ainbeste edo anbat geyago.

Errepublicaco buruba alde batera utzi eta urrengo erriric aundiyenean au bera icustenda, etanai dubenac contuban artu, ez du iracurri besteric eche abec argitaratzen dituzten paperac, eta pagatzen dituzten talkidac edo contribuzioac.

Emen buru diranen nagitazuna gauza abetaz arretatzeco, ezaguntzenda guztiyan eta geyago oraindie jendiari eracuzbideac jar-tziaren gauian.»

Catibuac diran lecubetan ez dituzte escatzen emendie ara joaten diran gazteac Brasile-n

gertatzendan bezela, nun beldurric ez dagon mercatariaac ara eraman azico dutenic, bañan nola gaur edo biyar sayatu liteztekean gisa ortan, ona izango da bi itz esatia moro edo Africaco beltzen tratubaren gañian.

Jakintzun eta bere erriari naitasun aundiya dion Sauchez Bustillo jaunac esantzuben Congreso edo legiac egiten diran bilguman «gizon catibuaren lana gariztiyago gertatzen dala bestelacoona baño.»

Eziñ chinista da ezer izan litekela merkiago gizon beltz catibuaren lana baño. Bada ordeac orain azaltzenda *beltz* berri bat, Africaco semia baño merkiagoa. Beltz gisa berriyan sortutaco abec, ez dira baizic, emendic dijoazten doacabezco jendiac, zoratuac agindu diozcaten jornal aundiekin, bidaje de baldeco ango irabazi amezcorrekin pagatuac, eta beste gezurtizeco tratu irabazi gain gañecuakiñ biziro engañatuac.

Bañan catibu berri abec jakiñ bear dute, lan egiten ez duten egunian, ez dutela irabazten, zergatic beren biarric ez dutenian utzico dituzten eta naiz bitartian irabazitaco diruba contuz gorde, ez du aski izango bere bearrac betetzeco lanic egiten ez duben denbora guttiyan, eta oraindic guchiyago pagatzeco mercatari ongilluari, bidajeraco aurreratu dioten diruba, geldituric zorretan eta aben mendian gizon catibu batzubeac balirake bezela. Orra nundic icusten dan gure arrazaco catibuac

badirala, beltzac baño merkiagoac, zergatic abec erosteco, nagusiyac biardute ascozaz diru geyago eman eta gero naicua gastatu mantentzeco: gure arrazaco langilleac ez du bada orlaco baliyoric, zergatic lan egiten badu irabaztendu, eta beztela, jatendu alduben bezela, bañan ez nagusiyaren bizcarretic.

Onec eracustendu gure arrazaco catibuac dirala prochu obecuac, eta nayago dutela Europacoa edo mundu alde ontacoa, africacoa baño.

Ona da ernai egotia baez bada gobernu catibu zaliac azperturic beltzen saldu eroztiakiñ asico balira ere gure arrazacoakin tratu aundiyan.

Eta gauza au gogoan ondo artzeco jende errez itz ezti batzubekiñ choratzen danac, jarrico degu emen Brasil-co carta bat egunoroco paper ascoc argitaratu dutena, eta nun gure esanac geyago ta geyago egitatubac azaltzen diran:

«Zoragarrizco esanac eta agindubac aituric ara juaten diran españolac, izaten dira ayen irabazi bidetaco icarragarrizco gisan jarriyac eta cristabac ez balira bezela artubac. Aben onduan edozeñec naicoluke izan beltz catibu bat. Orrengatic izan dudira jardungogor batzubeac, soldadubac sarturic pakian gelditzeco.

Babilonia deitura duben ontasun lecutic, berrogei ta amar maizter denac Canarias-coac alde egin zuten, eta gelditu ziran irurogei ta

bi gizon, emacume ta aurrai, burni bide eche-  
co agintariac lagundu zien.

Iutzenda bat aitzia zer esaten duben ganea  
abec icusi zituben batec.

An icustentzan, esaten du, gauza icaraga-  
rria: emacumiac negarrez, aurrac miseri go-  
rriyan eta trapu zikiñac.

Galdeturic batzuberi zer gertatzen zan, esan  
tz'igun:

Jana ezin izan litekela escasagoo: libra bat  
aragi, libra bat bacallan ete beste erdibat  
coipe, zortzi eguneco, iru familientzat.

Denac au bera esaten zuten.

Joshepa izena zuben emacume batec jan es-  
casi onen espas itz batzubec esan zitubelaco,  
gaizki tratatua izantzau itzez eta egitez.

Antonio, Pedro Velazquez eta Valentinac  
escatu zuten bein diruba artu biar zutenen  
contura, eta paguba izantzuten preso crama-  
tia.

Gañera, baziran sei illabete ango maizterrai  
lan eragiñ azitzen ziotela egunec ta gabez.  
Geyenai zortzizcaten iru illabeteco jornalac.

Esan degu azkeneco esclabo edo catibu  
beltza daguala maizter abec baño obekiago,  
zergatic no la beltzac diru ascuan erosten di-  
tuzten, mantentzendituzte eta ondo contu artu  
ere bai, baño maizter edo langielliekin ez date  
beste asmorie, alduten diruba ateratzia beste-  
ric.

Alare ezuste beltzac costa á la costa, iza-



nagatic, arkitzen dirala an beste alde tan baño izaera obian.

«Norte-America-co Correo» izena duben paper moldizkiratuan topatzen degu gertaera batzuben condaira, nundic artu litekean diran milloi terdi beltzen zorigaitzoco izaeraren neurriya.

«Azienda bateco catibuac alchatuziran gogorrian, eta erro ta arpillatu zituzten jabiac zituzten gauzac. Bere contu arturic abec agintariac dituzten gizonac, eramán zituzten cartzelara, gertaera onen auzijoaita bucatu bitartian.

Bañan beste jendiac etzuten izan aski gibel erabaki bitartian ichogoteco, eta cartzelaco atiac indarrian irikiric, beltzen jabe egiñ ziran eta beriala urcatu zituzten batere izcibatzecco lanic artu gabe.

Gero beste beltzac beldurrian sartzeco asmoarekiñ, ayen ebakitaco gorputzac zintzilic jarrita iruki zituzten egun ascotan.

Beste batian berriz, Erramon izena zuben beltz bat aspertuba egunoro artzen zituben makillazuakiñ, itzul egiñ zuben lecu zabaleco Probintzi Minas Geraes-en zegon azienda batetic.

Denbora pushca batian ibildu zan batetic bestera basocan, bañan azkeneraco billatu eta menderatu zuten. Baita ere beste beltzac icaratzia gatic ango nagusiyac asmaa artu

zuben gauz gogor aundi bat egitia Erramonekiñ.

Lenbizi eman zizcan berrogeita amar maki-llazo, eta gero olol biziyan gorputza zecarrenian, agindu zuben ozpiñ edo binagrez betetaco tonela batian sartu zezatela esatentzubenoz, aragi iriki ayec ichitzeco.

Andic pishcabatera erantzi eta lotu azi zuben zur bati, eta burni goritu batekiñ icutzen zizcan gorputzeco lecu mingarrienac batere cupidic gaba beltzac egiten zituben izugarrizco oju eta antzi tristeakin, illican onaze gogor ayekiñ lagabitartean.

Gauza abec dirurite beste jende ta denbora batzuben gizacoac ez gure artecoac.»

Beste errepublikaren gañian ez da itz egiñ bearrican, zergatic buruba aiñ jarriya daucate beste gauzetan, nun ez diran gogoratzen ara jendia eraman aztia.

Alde guztietara ere izango litzake alferrie Ezagunac dira ango aizetorkia ta oiturac egokiac ez diralā emengoentzat.

Eta batian esateco:

Ameriketanzalla da gauzac zuzen eramatia, zergatic lur ayec dande nazpilla aundiyan, gobernuaac berac jakin gabe zein diran beriac ta zein beste bacoitzarenac. Orrengatic ez da arkitzen zuztarra sayatzeco lecu batzubetan, bilduco litzaken jendiac egiteco nailuken aña, naiz gogo aundiya izan, ta nagituco li-

rake icusirie errichikiyac eta achurkintzaco maizterrac ez dutela aurreratzen.

Nola gauzari contu artzeco modu ascoric ez dagon, achurkintza dago izutuba eta beti bantian.

Ontaz gañera ango bide escasiyac biar biarrac diranac elcarrekin tratua izateco, lurrac emandaco gauzac aldebatie beztera eramateco, eta sortzen diran bezte zalltasunac, eracusten dute emendie dijoan jendien bizibidetaço utzaldi aundiyeñac dirala.

Ez du bada baliyoco esatia erri bat paketasunian dagoala, gauza guztien begiranza ondo ibilliya, eta jendiac zuzen escudatubac, utzegiteabekiñichiya gelditzen bada bizibidea.

Ez du baliyoco paper argitaratubakin beste lecubetaco langilleari ametzetan bacarric icusten diran ugarizco bilzeac agintzea, naiz lur utziyac berez ematen dituztela esanaz. beste lecu obetago daudenetan bezela agintzen dituzten gauzac egin biar ezbadituzte.

Ez du baliyoco mercatari oyeç zabaltzia Europa edo mundu aldi ontan guztiyan alduten gai eta itz ez iyenekiñ, zergatic ez dan gairic ta ez ere itzie aski gogorric ishili erazitzece geyenac aldi guztietara egiten dituzten ojubac, ara beren besoen indarrac eta dirubac eramanda icusidituztelaco batac eta bestiac galdubac, aurreratubac dauden ichura pisca bat besteric ezduten lecu basati bacar ayetan.



## BOSTGARREN BURUA.

---

### BESTE BIZI-BIDEAC.

---

Ondo adierazo degula uste degu bada zer izaera arkilezateken eta zer etorkizun izan. Plata-n, achurkintzan eta ganadu azitzen sayatzen diranac.

Icusi zagun orain zer bildu liteken beste lanetan sayaturic.

Erri artaco bizi-bide bacarra da ganadu azitzia, eta au dago pentsatu litekean atzeratubena. Ezagutucoda zer izaera duben (naiz izan au locnoen lenbizico bizibidea) jakinic ara eramaten dirala urdai azpicoac millaca aragiya ta esne zatiraundua asco, eta esne-aparra ta gaxta ere ez guchiyago.

Sartzenda denetatic eta alde guztietatic, zergatic an dagon irabazbide au azi berriyan.

Eta beste aldera ¿zer ateratzen da andic beste lecubetaraco?



Gauza guchi: illea, idiac, abere batzубec, zezin pishcabat, zerbait zerdatzu edo zurdillea eta saye luma batzубec.

Orra guztiya.

Biarda ere contuban iruki ateratzen diran dozen erdi gauza abetatic, illea ta idiac dirala geyagocoac, bañan alaere abec ematen dutena ez da gauza aundiric geyagotzen.

Rio de la Plata-co illea, aurreratuco baluke ganadu azitzeac, gaudon eunkiaren azkenetaco izango litzake beste ainbeste, eta orrela ere aragi gazituben aterabidea izango litzake illearena baño geyagocoa, ganadu azitzea giza onetan jartzeco alegiñac egingo balituzteke gobernuac zuzeneco arauac emanic.

Bañan gaitza da.

Eta berriz esan biardegulen izendatutaco Varela jaunarekin:

«Ez degu zertaco luzatu bearric gauza abetan. Esan ditugunac aski dira ondo aditzera emateco ez dala Errepublican bizi-bide chikiyenic ere.....»

Au bera esan liteke Errepublica Argentina-co eta iya Egoi-Aldeco America guztiengatic, gero icusico degun bezela.

Arrazoya du Montebideo-co izcribatzalliac: esanac aski dira.

Baita geyegi ere.

Alaere jarrico degu Montebideo-ren jakintasunaren gañian izcribatzalle jaun orrec be-

ra e esatendubena bere liburu *De la legislacion escolar* deitzen zayonean.

«. . . . . zergatic lenbizico begi col-  
pian icustenda ez dubela antzic Norte Ameri-  
caco erriyekiñ. Ez da fabrikic arkitzen, beste  
bizi-bide berriric ere ez, eta baten anima pena-  
tzenda zerbait urrutiratzen danian ingurube-  
tan dituben eche alai politetatic.

An aztendira lur gaizki landatubac, arbol  
bat bage, jenderic bagecoac eta aurrerago ta  
hacartarragoac, nun bazcatzen duten ganadu  
guchi malsotubac, izanic gure irabasbideric  
ederrena, eta etzanda icustendira ayeri contu  
artzen gure bazerri edo canpotico gizonac.»

Montebideo-co izaera onen eranza edo erre-  
tratoa, jakintzun Varela jaunac egiten dube-  
na, artu liteke gisa berian beste erri egoi-al-  
deco americacoentzat, gauza chikien batzube-  
chandaturic; bañan goyenian antz batecoac  
bezela artu litezke.

Icusten da bada nola dagoan zerbait bizi  
bidearen ichura icusi bear dala esan litekean  
lecu.

Edozeñec usteco luke dagola lecu lan uga-  
rizco eta aberatzetan, eta arkitzenda jendeac  
agintarien alde jarri ta erriyaren bizcar jaten-  
duben lecuban.

Au gertatzenda bada erri buruban, pentsatu  
liteke zer izangodan emendic canpoan.

Varela jaunac esango digu onluena.

Eta eziñ esan sinisgarria ez dala gauza abetan.

Rio de la Plata-n zerdan bada bizi-bide an ere eracutzico degu.

Langillearen jornala 1860-co urtian zan duro bat edo ogeita lau errial, eta gai ontan beste langille obiago eta lanetaco buruenac. Orra bada, gaurco egunian irabazi ori bera dute eta anbat guchiyago. Alaere urte artatic onera bearrac geitu dira asco, eta jan eran ta jantzi gauzen baliyoa igo da izugarri, ainbeste ezic, gertatzenda gaurco egunian miserian bizitzen dala orlaco irabazi arekiñ len poliki zana: eta oraiñ bere bearrentzat batec diña dubenarekin, orduban bizizan aberatz, bañan gaurco egunian aberatza bezela bizitzeco biar-dira gezurra diruriten dirubac.

Españolac geyago biltzen diran lecu Platatic canpora badituzte beste bizibide ba zube.

Abec dira Peru-co gatzutegiac, eta Perù ta Brasil-co tabacoedo erre belarrac eta azucriac, izanic baliyo geyenecoac azkeneco bi abec.

Baña bizi-bide abec ichiyac daude mundu alde ontaco jendearentzat.

Peru-cuac, zergatic gauzac bere neurriyan daudenian, Chinuac an ugari diranac guztiya egiten dutelaco, eta jakiña da langille merkiagoa dala eta onen ordeez ezin sartu litekeela beste bat. Brasil-c ere ez du lanic eman langille bere mendecoac ez diranentzat, zer-

gatic dituben bere catibu beltzac eta gañera  
orain alderdi guzti oyc dcaazki gelditubac.

Au icensiric çzer izæra lezako izan erruki-  
garrizco langilleac?

Bat izugarriya.

Miseriya.



---

## SEIGARRREN BURUA.

---

### ECHECO LANKETA.

---

Ícusi degun bezela zorioneco gauzen zalan-  
tzic ez bada erri barrenetan eta soroetan ga-  
nadu nagusiyentzat, achurkintzan aridanen-  
tzat, eta beste bizi-bidetan sayatzen danentzat,  
¿zer egin biardu emengo doacabezco jendeac  
len aberatzac ziran lecu ayetan oña jartzian?

Echeco lanketan asi, len aditzera eman gen-  
duben bezela. Baña gauza au ez da gustiyen-  
tzat egokiya, ez denbora luzeico ore, eta ez du  
batere etorkizuneraco esperantza aundiric.

Ango jendiac, emengo eta alde ascotacoac  
bezela, urre garbiya baño urre irudicantza ge-  
yago du, eta mendi tarte abetaco seme indar-  
tzubarentzat, ez da egiñ eche aunditaco juan-  
etorri baten izatea, ibillirican mandatuketan  
dizdizarizco jantziyekin.

Ez degu utzi biar esan gabe zer gertatuzan orain dala urte bete baño zerbait geyago, españico paper argitaratu eta Uruguaicoaren artian, Zaragozaco beste batec jarri zuben berri batengatic.

Gizon doai aundico batec, argitazunez betetaco eracuslea, iscribatzaile garbiya, apaiz gogotic jakintzuna, eta gizonen biotzen ezagutzalle miragarriya zana, Balmes aundiyac, Cataluniyaco onorea eta Ezpañi guztico gloriya betico izangodanac, esatentzuben bere liburu edorronetaco batian, egunoroco paperengatic, mintzatzean uste izaten dutela goyenac naidan bezala iscribatzen dan lecubetan (eta guc American iscribatzen eramanditugun urtiac eracutzi digute au dala lenbizicotaco lecuba nai bezela irkribatzen dan tokiyen artean) uste izaten dala bada, errez dala egiya billatzia, bañan egunoroco paperac ez dutela ecartzen beren iscribatzaillac dakiten dena, eta ez ere guchiyago persona ta gauzen ganiian, naiz paper abec azaldubac izan naidana iduritzez ezan liteken lecubetan.

Batetic beldurraz gobernucocac jasoco dituztelaco kastigaturic egilliac, ero, jende batzubenkin ez gaizki jartzia gatic; bestetic beren hurubaren begiratazunez edo bacoitzaren biziyen arretaz, eta beste gauza ascoc eragusten diete maiz iscribatzailliari, gauza batzuben esatia naiz egiyac, izan litezkienac gaizcartiac, zeñekin gelditucoc liraken azaldu litezken pa-

perac ur loitzu zikin batzubetan biyurtubac.

Ondo sinistuba Zaragozaco iscribatzallia arrazoi abetaz, aditzera emantzuben argitazunarekin, ez batere uste gabe inor gelditzeco nola doacabezco emacume gazte asco itsazoz arontzaco aldeayetara eche lanketara joten diranac iritziyan, arkitzendiran emacume galdu gizonen gogo charrentzat izateco biurtubac.

Zenbat eta zenbat guraso egongo dira beren alabac famili on artearen laguntzan dauden ustian, eta bitartian arkituco dira jarageitaturac! eroriyac. Ama atzecabetu gajuac ez ditezela fiya geyegi beren alaba onaren birtute aundiyan, zergatie jah! duten biotz onian ez duten uste izaten gaitzic izan leikenic gisa ortacoric, gurasuari asken agurchua eginta joten diranian.

Onelaco bide chatarretan ez erotzeco izan biarlake gauza bat, dana, maliziya, baña Jaungoicoari ezkerac, ez da gure arteco emacume onradubetan arkitzen munduaren ezaguerac ematen duben gauza ori.

Egunoroco paperac esaten dute espa aundiarekin, zenbateraño dan probinzi galleguetaco emacumiaren joera Ameriketara, geruago ta geyago dijoztela, aski ez balitz bezela orrenbeste gizonen itzuliya lecu ayetara, utziric emen illac, achurkintzac eta beste bizi-bideac, Ameriketaraco griña ori zabalduere da Asturiasco aldian, asco buru galtze emanic gizon jakintzunari, eta escatu erazirik agintariai

erremediatzeco gauza au aldan guztiyan.

Madrill-co paper *Correspondencia de España* deitzen zayonac esaten zuben 1882 garren urteco abenduaren zazpiyan, Pontevedra-co probintziatic bacarric jun zirala Ameriketara urte artan guztiyan *ogei ta bi milla* emacume, bannau naiz esaera au iduritu andizkidatua, egiya dana da, lenagoco urtian atera zirala lur ayetaraco *eun milla*, zohetatic ziran anbat erdiyac españolac, eta egiya da ere Galiciya eta itsaz-baxter abec gelditzen dijoazela jenderic gabe.

¿Eta zertara dijoaz ara gisagajo oyec?

Ango paper batec orain esango digun izacera billatzera.

«Atzo burni bidean etorriziran ogei ta amabostac, zabaldu dira erri inguruban canpo al-dian, lanic eziñ arkituric, eta beren izaera da oso larriya.

Achurkintzaraco eta ganaduac gordetzeco ez dute oraiñ gizonic escatzen, eta badira lenendic jun ziranetatic oraindic lanetan asi gabiac. Abec dabilta calietan limosna escatzen.

Au egiya izanic dan bezela, izan biarlitzake aski ez jende geyago aldiontaraco bildu ta ecartzeco escalez caliac heterican.

Onera etorriziran gau artan bertan, jarri zizutzen ostatuz *Pólvora* deritzayon echian, Canpo Santuco [deposituarekiñ pareta bitarte.

Urrengo legunian icusten ziran calietan



jendiari escatzen abora eramateco mocadubat.»

Eta icusbide tristeau aski ez balitz bezela, iracurri zagon paper argitaratutaco «La España eta El Uruguay-c biyac Montevideo-n» azaltzen diranac esatendutena contuban irukitzeco zer izaera icaragarriyetan arkituleiken an bat.

Esatendute bada: «Kzda erriric izango zerbait dakiyenic eta danic guchiyenian ondo azitzeco moduric pishkena izan dubenic, nun gertatuco diran ainbeste gauza cristaben antzic ez dutenac, eta aifñ maiz nola icusten diran Argentinaco Errepublican.

Arkiturican aldan aurreratubenac beren salerosiyetan eta beste bizi-bide guztietan, alare aifñ gauza icaragarriyac gertatzen dira an, badirudiyela ez dutela erlijiyoric eta ez alcartasun onian bizitzeco esagñerican ore.

Alegiñac egiñ biar dira bada ondo eracutziric jendia bide zuzenera ecartzeco.

Aushen da biar biarrena erriyac biar dituzten bertutiac izateco.

Ez da egun batetic bestia etortzen azaldu gabe gertaera chatarren bat.

Denbora guchidala «Martin García» izena duben uribitarteco lazaretean izantzan izugarrizco eta nazcagarrizco gertaera bat, gauzac bide zuzenian jartzeco contuban agintariac dituzten gendeac egiña. Abec animali odol zaloc balira bezela, kenduzizcaten aitari beren

besoetatic zituzten alaba maitagarriyac; senarrari emastea, umezurtzac beren contu artzeallari, eta guztiyac batere cupidic gabe ondartzeco.

An, millenbat persona Ultramar-tic zijoaztenac leorreratu ta beriala, erori ziran ayen gañera, zenden tropaco jende, enpleatu ta lanian jardun ziranac zernai deituric emacumiari, eginic abekin diran desegoki likits aundienac, eta joca ibilliric beren senar, anai eta aitac.

Gauza icarragarritzco abengatic, paper egunorocoac cerubetaraño irichiziran, ojuac egiñ zituzten, bañan gaizto ayec etziran erori justiziyaren escubetan.

Ez dala oraindic egun asco eta Buenos Aires-etaco jenderic agertubena edo aundiyena ibiltzen dan pasio ederreneco Palermo izena dubenian gertatuzan egunen erdi erdiyan zebiltzala pasiatzen beste lecu bateco senar emaste batzubeac, ichuras America coac etziranac, eta bat batian iru gaste ango echeric aberatzenetacoac indarrian artu zuten emaste ura senarren besoetatic, iya arrastaca eramantzuten berac zekiten lecu illun batera, eta an egintzitzen arreakiñ diran desegokeri eta itsuskeri aundienac oso gaizki ibillirican gasho ura.

Alareñor agintarien ordafiacoric etzan conaturatu ta azaldu eragotzitzeco orlaco oker aundiya, eta ez diraere guc dakigula beñe-

pin, erori justiziyaren [escubetan gaizkillo abec.

Geroztic ematen digute beste berri bat lenguen antzeco zacarra, ango paper argiratu egunorocoac, eta onen gañian esatendu «El Figaro» deritzayon Buenos Aires-ecoac: «*Desegoki gogorra.*» Atzo arratzian izanduzan borchatuba lau gisasemereren artian beyac eta zaldiyac irukitzeco lecu *Chahacuco* izena duben n.º 457-garrenian, emacume gazte bat Dotore L. Blanco Villalta-ren mirabea, bizi dana Estados-Unidos-co calian, lumero 222-yan.

Mirabea da frantzes, ogei ta bederatzi edo ogeita amar urtecoa eta Maria Hurst du izena.

Guchi gora bera, amarterdian aterazan mirabe au bere nagusi Dotore Villalta-ren echetic, charro bat esneren billa *tambo* deitzen dioten aldera, beyac gordetzeco dan eche artara.

Andic denbora guchira, izkin batian zegon erri contu artzalle batec aitu zituben andic ateratzen ziran oju aundi batzube, erdi ituen bezela escatzen laguntza.

Contu artzallia juntzan corrica lecu artaco sarrera aundira, eta indar asco eginic iriki izandu zuben an dan ate chiki bat barrendic ichiya zegoana.

Berial-beriala azaldu zitzayon mirabea jantzi guztiyac purracatubac zitubela eta besoi eragiñaz ero batec bezela.

Contu artzalliac jo zuben chilibituba eta

agertuzan sarjento bat, zeñec egin zituben bestiaerekiñ echien icusberac.

Nola mirabe onec ezintzuben aditzera eman zer gertatu zitzayon, zergatic denbora guchi dan Buenos Aires-etan dagoala, eta ez dakiyen gure izcuntza, eramantzuten agintarien ordecoac biltzen diran lecura, eta an estuasuna zerbait juntzizayonian, nola pait esantzuben au.

Eche artan sartu zanian esnearen billa, icusizitubela bi gizon gelditubac, eta ayeri galde-tu ziyela zeintzan esnia saltzeco contuba zubena.

Abec esantziyotela etzegüela an, bañan aye-taco batec emangoziyola.

Orduban mirabea bera barrenago sartuzala, beyac zeuden lecuraño.

Gero an zegon pioy batec, ichi zubela atia, artagaya edo tranca aundi batekiñ.

Bitartian berarekiñ juntziran pioyac, erori zirala bere gañera, besunkiñ estuturic indarrian, eta egiten zituben ojubac ez aitzeco, abuan loturic pañubelo lodi bat itozeco perillan.

Berac gogor egintzubela, bañan atian geldituzana etorriric, botazutela lurrera, eta..... ezin esango degu geyago.

Aushen esantzuben mirabe gaju arrec eziñ itz egiñican, lotza, asberapen eta negarren artian.



Alegiñac egiñic ez dituzte oraindie arkitu gauz aben jabeac.

Eta ongitzaz emanic estuasun aundi abetera etortzen ez dirala, gzer gisetan arkituco dira emacumiac beren familetara biurtzen diranian?

Zorigaiztoco batian bacarric.

Oso zorigaiztocoan, zergatic dan eraman zutenaren alderanzicoa.

Biurtzen dira anima izoztuta galduric erri-lijiyeac ematen dituben sentimentu onac, lege santubac azturic eta ajola gabe. Gorputz debilla edo indar bagecuarekiñ achurkintzaraco edo eheco beste biar gogorchuetan sayatzeco.

Anima dacarte jostaketaco naikida aundi-yarekiñ. Corputza menderatuba lanac ematen diyon nazcarekiñ.

Buruba berotuba ametz eruakiñ eta ezerekiñ eta ezerekin eziñ gozoro arkitu dirala.

Jun ziran animaz garbiyac, laneilleac, eta egiazco cristabac.

Datoz choruac, arruac, eta erligiyoz oroitzen ez dirala.

¿Badira batzubez beste giza onian etortzen diranac?

Guchi.

---

## ZAZPIGARREN BURUA.

---

### ESCOLADUN JENDE AMERIKETARATUBAC.

---

Ameriketaco lurretara juten diranetan, ez dute guzti guztiyac arkitzen ain bizi-bide illuna nola orandaño azaldu ditugun bezela-cuen gisan.

Bañan ez uste au esatiarekin mudatu dala gure iritzi egiazcoa, bada geruago ta geyago bayeztatzen gera len izcribatu ditugun gauzaren gañean.

Doacabezco jende Ameriketaraco joera artzen dutenac beren besuac baizic beste ondiric gabe, adizkide bat ez dutela zerbait laguntza escatzeco, eta norbaintentzat escutitzic ere ez, naiz au izan ezerez bezela zerbait sarrera izateco jende ayen artian, dijoaz jakiñ gabian heren burubac bucatzera bezela. Beste asco aberazteco zoriyan ermaten dutenac diru

mordoshca bat, onekin denbora guchiyan pill aundiyac egin eta dirutan lertzen jartzeco asmoetan, dijoaz jakiñ gabian ere, zulo batera, nun luzperatzen diran, ez diru mosdoshca oyec ascotan beren aitac urte ascotaco lan gogorren bidez, izardituen podoriyoz eta jakiya gorputzari ucatuaz eginac, baizic gañez dituztenac. Bañan escola aundico jende beren tituluakiñ Cristóbal Colon-ec arkitutaco lurretara dijoazentzat, esango degu oraiñ zer izaera azalduliteken, eta zer etorkizun izan beren asmoac.

Izandu degu guc Ameriketan isturiyozco ekintza, irabaziya ezamiñ gogor baten bidez, eta gurekiñ degu lan ontaco artutaco agiripapera.

Orrengatic itzegin genezake ondo eta gauza onen ezaguerarekiñ.

Alde abetaco jende asco escolatubac soldaduen agintari izateco edo beste gauzetaco, dute an estimaziyo aundiya.

Batzubec, zergatic ango escolatzeco eche aundi universidadiac deitzen zayotenac; diralaco gabentzuac errepublica guztiyetan, naiz osuago eta zerbait obiago izan Buenos Aires-etan, Santiago de Chile eta Liman.

Bestiac berriz zergatic ez dan Ameriketan tropic beste aldetaco agintari asco ez dutenic beretacoaren artian.

Bañan abec izanic oso balientiac ez dute eta eziñ izan litezkere emengoac dituzten jakiñ gayac, zergatic an'eracusten dioteña da erdiz-

cacogisacoa, egiñican aldeabetara jende ernayenac bialduta abec icusten dutenen gañian sayaturic, bada tropa aundiyac mogitzeco gizac eta beste gauza guztiyac, icusi gabe ez dira oso conturatzen zer ta nola egiñ.

Gauzabec guztiengatic, an emengo jende escolatubac estimaziyua eta sarrera obia dute beste indarreco lanetara edo diru pishcagatekin irabazi aundiyac egiteco asmoetan juten diranac baño.

Alare zoyen izaera ascozaz obia izaten da?

Ez.



---

## ZORTZIGARREN BURUA.

---

### OSASUNGARRITAZUNA

---

Ez gera medicubac eta ez degu asmorie artu gauza onen gañian jakintzubac bagiña bezela jendia escolatzeco. Bañan guc an icusiyac emandigute aski esagñera jakiteco, zer gisetan arkitzen diran lecu ayec osasunaeren gañean.

Gure bidajiac Ameriketaco errepubliketara, eta an denbora luzean egotiac, eracutzi digute, dirala oso aundizkiratuac mercatari araco jende biltzallien esanac choratzeco alduten modu guztiyetanzaso oneco gazteriya, agertu aziric lur ura paradiso antzeco beste lecu bat balitz bezela, jendien bear guztiyac beteric gañera, sendatzen dirala miñ denac eta battez ere estomago edo urdallecoac.

Aditzera ematen dute, lur ura icutu eskero mantentzeco bear guztiyac bucatzen dirala,

zergatic aragiya ugari dan, eta ala aih merke, egunoro guztiyac ongi jan lezateken moduan.

An, esaten dute, ainbezte ganadu da, ezic iltzendentuzte bacarric larruben prochuac gatic.

lez da egiya.

Ori gerta zitekean, gertatubazan, ganaduba ugari zanian; bañan gaurco egunian iltzen badute idi edo bei bat, da bero contu ta arrazoyarekiñ. Larrubaz serbitzen dira *estancia* deitzen dioten ganadu lecuen biarrentzat, dala aberetreznac egiteco, dala saltzeco; eta aragiyaz, dala echean jateco, nola zezinetaco saltzeco.

Ieusi izan ditugu saltzen asco euneco checor cleac, amasei, ogei, eta ogeita lau duruan buruco.

Gañera Buenos Aires—eco *La Revista de Ganaderia*, izena duben paperac, azaldu izandu ditu onelaco berriyac.

«Beste lecuban esaten degunaz gañera adieraziric zer gisa charrian arquitzen dan ganadu contuba probinzi ontan, jakiñ degu asken orduban, biurtu dirala erri ontara ganadu jabe batzube ibilliric Norte edo ifar alde guztiyan alegiñac egiten ganaduba erozteco, eta erosi gabe.

Emendic esagntu leike zenbat baliyoco duben plazan erositaco aragi libra batec, zergatic nola ango libra dan castillacuaren berdiña,

baliyoa gertatzenda emengua ainbatecoa erosiric erri aunditan; eta nola canpoetan ganadu nagusiyac duten saldu bide jakiña, gertatzenda emen errietan aña garizti canpoetan eta alde guztietan.

Gañera, ala ez balitz ere, eta naiz izan esatendan bezelaco ugari, gertatzenda an aragiye kiñ gauza arrigarri bat medicuen eta boticariyuen arreta asco deitzen dubena.

Mundu guztiac daki janari sustantzi aundicoena eta gorputzeraco chegoegarriena dala idien aragiya. Onenian erantzungo digute Hipocrates-ec esantzubena, alegiya cherri aragiya dala sustantzi geyagocoa idiena baño eta diñagocoa jende langillientzat ematen dituelaco gizentazuna ta indarrac. Bañan esaera au ez izanic osoro egiya, cherri aragiya ez du gorputzac aiñ ongi artzen, eta du gañera beste gaitz bat Ameriketan, dana, cherriyac an jaten dituztela beste animala erdi ustel daudenen puscac, ala zaldi, beor eta beste iltzen diranac ainbeste zerri talderi jaten emateco.

Eta emendic sortzen da miñ gaizto bat *trinkina* izena dubena.

Orra bada, au jakiñic, icusizagun oraiñ zer gauza arrigarriya gertatzenan Americaco idien aragiarekiñ.

Basoetaco animaliyac bere gaiñ ibiltzen diranac eta bere modu jaten dutenac canpo ayyetan lurrac ematen dituzten ereiñ gabeco jakiyakin, dute aragi naikida geyagocoa beste

echetaco animali malsoac baño, eta alare zergatic eta nola jakiñ gabe mundu alde ontaco jakiyari jarriya dagon jendia, arkitzenda ango mantenubekiñ flakiya geyagoan, naiz ganadu onenen aragiyarekiñ mantendu.

Au gertatuco balitz lecu beroetan, ezlitzake arritzeco gauza; bai Plata aldian, nun ezdan orlaco bero aundiric.

Ezpañiyan eta batezere gure probintzi abetan maiz eramaten dituzte arategira idi gizendu edo bazcatubac coipez eta odol urtzubaz beteta daudenac, eta naiz gorputzac ondo artzen ez gauza abec, aragi abekin mantentzen diranac ez dira gelditzen aiñ argalac nola America aldi artan mantentzen diranac, naiz izan basoco ganaduen aragi obiagoarekiñ.

Batian esateco bada, ango aragi jaki gaiñ gañecoa iduritzendana, da emenguen diñacoa edo ezcasagoa, naiz emen aragi guchiyago jan edo ustian charragoa.

Eta au gertatzen bada *Rio de la Plata-n* ganadu lecuric onenian zer izango oteda Atacamaco lecu bacanian eta beste aldietan?

Gosia eta jende langillia izango dira maiz alcarrekiñ.

Gero onec ecartzendubena. Eritasunac eta miseriya.

Beste gauza bat ere bada emendic dijoaztenen osasuna galdu azitzeco diñacoa. Ur gazi antzecoac: ala dirade lecu ayetan edateco ur guciyac gorputzen caltean, bada jakiyac ez



ditu ondo artzen gorputzac eta sortzen dira orrekiñ tripaco miñac.

Au izaten dute gayago go aldeco Ameriketant zabaltzen diranac, eta batezere Chile-co ifar aize edo Norte aldeco itzaz baztarretan eta iya Peru guztiyan.

Gaitz aben ordez eta ezagaturic ara dijoaz-tenac ur charrac dirala, erortzen dira beste gaitz aundibatian, sendabide bat balitz bezela. Estiac erretzeco gizaco erariyac artzen.

Ez degu biar duben izena gauza oni ematen.

Edo garbiyago.

Ez degu esan nai urizeki edo aguardiente orantzalle egiten dirala moscortzeraño: ez.

Esan naideguna da, geyegi eraten dituztela barren erregarizco erariyac, eta naiz moscorrac izan ez beren contuba galtzeraño, alare jakiña da zer oker aundiyac etortzen zaizcan gorputzari erari abekiñ.

Gogortu eta biltzen dira oztinac. Batzubetan ogiñ bearrac geldiazi, eta bestetan geyegi mugitu, nasturic gorputz guztiya.

Emendic gertatzen dira, indar galtziac, argaltasuna, erotasuna, eta azkeneraco eriotza.

Beste gauza aundizco bat gorputzaren caltian odola guchitzen dubena, da jan escasiya edo jan charra, sarritan gertatzen dan gauza Ameriketaco locu emendic jundaco jende asco biltzen diran batzubetan.

Beste gauza batec ere egiten diyo gorputzari gaitz, eta da aizetorkia chandatzia.

Ala, Peruco itzaz bazterretaco jendiac ezin jarrico lirake Atacamaco bacantazun tristeco egoitz errera, ez balitz izotz lecu aldeco aiziac gatic.

Au bera gertatzenda Ecuador-co *Errepublikan*. Kito-co erriyac ditu 80.000 biztanle edo persona, dago iru milla metroz itzazoaz gañetic, lecu lur ugarizeco eta bizi lagunecoan, lur icarac izaten ditubena, eta naiz Ecuador-co lecu beroan, du aizetorki bat Italicco Niza porturen antzecoa, egonic au ascoz ifar aronzago.

Ibar ortan, egonic Ecuadorrian bertan, izaten bada betico uda berriya, da endi aundiyen zelaustazulac gatic, itsas baster zabalac gatic, inguroco mendi tontor beti elurrez betiac gatic eta diran ugaindeac gatic. Gauza abec guztiyac jartzen dituzte lecu ayec gisa ortan.

Onlaco zerbait ere gertatzen da Colombian, ditubela aizetorki alde ascocnac eta lecu berdin aundiyetan urtian ditu bi ora. Urte erdiyan legortasun osoa, eta beste erdiyan gelditu gabeco endiyac.

¡Zer lecu choragarriya!...

Ontaz gañera Ecuadorren beraren eta Linea deitzen zayonaren azpiyan dago Cayambe-ren tontorra urte guztiyan elurrez betia.

Orra bada.

Izanic aizetorkia orren aldacoya, oasunac ore ala izan biardu.

Aizetorki bacuitzari dagokio bere gisaco osasuna eta bere antzeco gaitzac.

Lecu batetic atera gabe arkitzen diran alda-coizco aizetorkiyac.

Lur berdiñian bizi dana ez da menditarra bezelacoa. Lecu legorrecoac ez du ez arpegi eta ez osasuna eta ez ere miñ berac isaten, no-la aintzira edo ur gelditu artian bizi danac. Españiyan bertan ditigu onlaco icuzbideac. ¿Zertan du antza gallego batec balenziano-arekiñ, catalanac estremeñuarekiñ, bizcaico semiac andaluzarekiñ? Españitic ateratzen ba-gera Europaco beste aldetara ¿zer antza arki-tuco degu ingeles illun eta italiano biziya-ren artean, turco gozanay eta gallego cutizi nai-bagacoarenkin artean?

Eta Europatic joaten bagera Ameriketara oraindic arkituco ditugu banaita edo diferen-tzi geyago. ¿Zer antza izan lezateke New-York-co seme garbi, chucun ta ernayac, boli-biaco *cholo* zikiñ, alper eta argalekiñ?

Emendic dijoanac diru egiteco asmoetan, gogor egiñ biardio aizetorkialdecoy guztiyari, bañan ez aberatzac bezela, zeñac dituzten mo-dubekiñ, estitzen dituzten batera edo bestera gogortazun oyec, bañan eztubenacezinlezake.

Batez ere lecu erre biargarriyetan perilla ori izan leike iltzeco diñacoa.

Paraguay ta Brasileñ naranja bat ordu batzubetan chupatziac edo jatiac, ematendu beriala sucar aundibat, eta sabeldarzun edo

beronzco gaiztua, eta beste ainbeste sortzenda ur gelditubac eran ezkeru.

Illuntzetic gabeco bederatziyac arteco intzaren beraatasunac, ematendiozca artzendu-benari conturic gabe, otz icarac dozen erdi-bat illabete luzatzen diranac, edo bestela ubilla edo erreuma burucnac, batac eta bestiac biziya perillan jartzeco gizacoac.

Bertacoa danac duben zoriya miñ abetatic zafatzeco, izaten du canpotic etorriyac, bañan denboren bidez eta asco icusiric bitartian, makiñabat bider biziya usteco salantzan jarrita gero.

Orrengatic ez da egiñ biar ametz chororic.

Canpocaa libratzen da miñ abetatic ocho onian bizi litekenian, jantzi bear bezelacoac ditubenian, ondo jan lezakenian, eta contu aundiye kiñ bizitubaz, ez egun batian eta bestian, baizic denbora luzian.

¿Eta emendic ezer gabe dijoanac egiñ lezake ori?

Beñere ez.

Gañera aizetorkien aldacoyac aiñ dira gaiztoac, nun gertatzen dan *America rusa-co* Siikka deitzen zayon uribitartian, aldean beti eudiya egiten dubela, ainbezteraño ezik, ez dirala urtian berrogei egun izaten onac, alatzubat izanic Hornos-co bucan. Eta Atacama-co cremu dubenean sei milla leguaren zabaleran, ez du seculan eudiric egiten.

Zorionian emendic dijoazten euscal-naparrac



ez dira inguratzen *America rusa*-co bacarta-sunctara, eta ez ere *Hornos*-en bucaco lecu aberatz eta jela-tuetara eta *Tierra del Fuego* deitzen diotenera, bañan bai Atacamacolurretara, nun beñere eudiric egiten ez duben, eta aldian egunoro lur icara gogorracizaten diran jakiña dan bezela, nola izan ziran batez ere itsas baztarretan, 1586, 1630, 1687, 1747, 1806, 1822, 1825, 1828, 1868 eta 1874-co urtetan zorigaiztoco ondorenaekiñ.

Onen gañian esatenda, lurperatu zala osoric Errepublica Argentinaco erri Mendoza deitzen zana illican amabi milla persona: gañera purrucatu ziran beste erri asco Peruco itsas bazterrecoac *Sur-tic Norte-ra Cerro azul* deitura duben lecu arte. Beste asco ere bai barrenago, Bolibiya-co guztiyac, eta batzubeac Chile-co ifar aize aldecoac.

Itzazoa gañez etorrirican eta botarie lur icarac zutic utzi zitubenac, alde guztietan negarra bestericaditzen etzala, eta zabalduric gauza dezegiñac, miseriyac eta eriyotzac.

Lur icaren ocarrayac izaten dira uste bañon aundiyago eta arrigarriyagozcoac.

Lecu batzubetan lurrac izugarri goratzen dira, eta bestietan azpiratu.

Chille-c ere izandu ditu gora bera asco.

1822-garren urteco azaroaren emeretzico gabian, lur icara gogor batec mugitu zituben Chile, Santiago ta Valparaiso-co aldiac, eta sentidazi zituben lurrac bi milla kilometro

bidean Norte-tic asi ta Ego alderano. Urrengo goizian icusizan nola lurra alchatubac zenden len zuten berdincatic. Valparaiso-n igo ziran metro bat iya eta zerbait geyago Norte aldian.

Beti ur azpiyan arkitzen ziran arcaitzac, gelditu ziran ageriyen beren lapa ta muscullu guztiyac itsatsiyac zituztela.

1825-garren urteco Otzaillaren ogoiyan, izan zan beste lur icara bat, lurperatu zitubena Concepcion, Talcahuanoeta Chillango erriyac. Lecuabetaco itsas bazterrac alcha ziran ere metro bat baño geyago, eta gero jeizten juntziran pizcabana berdintzen geldituric irurogei centimetro-ren banaitan.

Ona bada zer gauzac gertatzen diran an.

Oyec dira urre colozeco gauza edor mercatari jende eramantzalliac eracusten dizcetenac begiyac ichaturic ara dijoazenari.

An dacazkite ayen zai zorigaizto abez gañera, *colera*, *febre amarilla*, eta diran sucar jenoro charrenetacoac.

Eta naiz ongitzaz emanic diruba egiten dutela, gauza zalla dans, gnola egiten dute? Beren oasunen truc.

Beren biziyen trukez bada.

Preziyo ona.

Naidubenentzat.



## BEDERATZIGARREN BURUA.

---

### AMERICA-ESPAÑARRAREN CONDAIRA

---

Lan au egiten asi gñanian, ezagutzera eman genduen ariñ ta bakidan, zer nazpilletan ta bururic gabe arkitzen ziran *Rio de la Plata*-c buztitzen dituben lecu ayec, bere gisa izateco bideac artu zituztenetican.

Orain guacen aditzera ematera nolacoa dan ango izaera iritarauki eta elcargarrirazuncoac, eracutziric lumeroakiñ, zer modu merkakingarrian dagon, eta bete arte aditzera eman, emendic dijoanac an izango duben aurreraco bizi-bide illun penagarriya.

Naiz aundiya izan gure nacaitza gauza abec iscribatzeco, ustedegu esateco biarrrian gaudela. Guda aundi bat iruki biar degu, batetic gure jarkiac debeatzen digutela besteren okerrac azaltzea, eta bestetic gure erriya-

ren osasunac bere seme ascoren zoriona ta bi-  
ziyekin aurkesturic, escatzen digula gogotic,  
naiz izan egi samiñac, guztiya zalatzea.

Bañan ez degu gauza oen denen eztalkiya  
alchatuco. Aski degu iskiñen mutur bat jaso-  
tzia, eracusteco choratu ta ichutubac daudeze-  
nari, leiza zulo ondobagecoa nundic alde egin  
biarduten.

1830-garren urtotic, lur ayetan beren giza  
jartzeco sortuzuten gerra bucatu zanetic one-  
ra, izandu dira beste nazpilla ta gerra asco.

Ara nola.

Errepublica latino-americanaco gobernu guz-  
tityac edo greyenac, escatuzyoten beren erria-  
mari ezagutza, ez umiltazun charreco gizan,  
ascotan gobernuac duten dotriñakin egiten  
duten bezela, baizic modu obian.

Espaniyac icusiric eziñ bereganatuco zitu-  
bela artian beriac izan ziran lur ayec, eta adis  
kidiac izan nañic lecu guztiyeta, naiz abec  
izan urrutiyenetacoac, bere buru izateco gisa-  
ri esaguera emantziyon errepublica ayeri.

Ordutic America izanduzan libria eta bere  
gaincoa, bañan etzuben beste erremedioric  
billatu, baizic gobernu errepublicanoa jartze-  
coa Norte Americaco-en antza chatar bat ar-  
turic.

Bañan españolen oiturac beste gisacoac iza-  
nic, beste aldecoac zituzten legiac eta ango  
bertacoen izaera ere bai, ta billatzen zuten  
zoriona Errepublican arkitu biarrian, arkitu



zuten anai arteco gerraric guiztoena eta icaragarriena, mundic oraindaño atera ez diran.

Gerra aben bidez, brasileñuac juntziran artzen ta zabaltzen zituzten lurrac, ishil ishili-can, lapurrac ostutzen duten bezela.

Brasilec duben aldeera Errepublica americacoakiñ bere calteraco izan biarran, oneraco du, zergatic ango enperadore jakintzunac biatzakin señaipetu besteric ez du errepublica ura esanic: «Arretatu eta jakintzazute zer gertatzen dan Montevideo-n. Eta escuba jiraturic ezan aurrera: ¿Aitzen dezute Buenos Aires-eco otsamar icaragarri ori? Aitzen dituzute Vene-zuela-co deadarrac?» ¿Etzerate izutzen Bolivia-co negarrakin? ¿Itzaituzte icaratzen Tucumango oju triste oyec? ¿Ez dituzute aitzen tiru oyec? Dira zorigaitzeco necazariyac itzen dirala millaca fusilatubac Martin Garcia-co uribitartean.

¿Dar dar jartzen zerate musica soñuba ori jotzen dutelaco ez aitziatic itzen dituztenen carrashi gogorrac?

Dira millaca *porteño* Rosas goyendacaren mendeco mazorkeroac itzen dituztenac beren escubetan lepoepaizturic.

Onlaco izaera zacarrarengatic izandu dita Uruguay-c eraigorac, Brasilec, Franciyac, Italiyac eta Espaniyac escatubac beren naziyotaco jendian egindaco tropeliac eta eriotzac gatic.

Paso Hondo deitzen zayon lecnban, errepu-



Blicaco agindari aurrenen anayac zuben bata-  
lloyekin egindaco eriotzetan brasileñuekin,  
aditu zan gizon asco iltzituztela fusillen ipur-  
cancarrekin, eta au ez ere odol beruan, eta  
gañera gerran bere mende gelditu ziranac.

Francesacegiñ zuben eragoizco escaera, zer-  
gatic beretaco bat ill nai izandu zuten, eta  
indarrian echian sarturic nazpillatu zuten  
moldiztegi bat eta itzuzkeri ontan agertuziran  
sartubac Gobernuaren mendecoac berac.

Italiyac artu zizcan contu gogorrac Uru-  
guai-co gobernuari, emantzizcan tormentu  
oñace aundiac gatic bi italiano Volpi eta Pa-  
troni izena zutenal, eriyotzac egin zituztenen  
ustian, gertaturic gero gaitzbagecuac zirala,  
zalatu zuben bezela eriotz oyec egiñ zitube-  
nac berac; eta miñ aundico tormentu oyec  
etzizcaten eman gobernuco buru zanen baten  
aurrian, edo Montebideo-ri contu artzeco da-  
gon jendiaren agitarienian, ez ere gobernuco  
beste egitean jarduntzen diranen aurrian uste  
zan bezela, eta oraindie guchiyago Errepubli-  
ca-co buru aurren edo presidente danarenian,  
baizic egintziran, agintar oyen mende daude-  
nac gatic.

Ala, azaldu biardegu gauza bat.

Zergatic izanic gu ecadoi edo justiziaren  
aldecoac, nai izaten degu eman bacoitzari be-  
ria, eta orrengatic adierazo egin biardegu, jen-  
diac jakin zitubeniian italianuekin egiñ zituz-

ten desegokiac, oso gaizki egintzaz artuzitubela.

Azkenerraco esan biardegu, españolac egindaco escaerac zirala, lenbizi arauta 300.000 duro pagatzecoa Montebideo-co sitioan lagundu ziyoten españolai; eta gero Sarracina eta Sanchez Caballero-ren eriotzaren gatic, nun arkitu ziransartubac bezela gain gañeco agintari batzubeac eta beste diputadu bat, bañan guztiyon oneraco gero gertatuziran gaitzic egin bagecoac, eta izandu ziran libre jarriyac jakin degun bezela geruago.

Españiaren escaera oyec antolatatu dira diotenez gisa ontan. Lenbicioa, emanic 300.000 duroren paguan Uruguay-co paper baliyoz ordanecoa: eta bigarren, edo eriotzaren contua, altzuten esanic onenac emanic españiyari, eta gauza abec ardietzi ziran eskerrac españico aurkeztatzari an zan Llorente Vazquez jaunari, zeñec bere jakinduriyarekin escatu zituben gogorrian.

Au da bada ango icuz'bide tritea.

Aldebatetic aitzinkidariac artubac, eta bes-tetic nazpillac janac.

Erriyac izaten badituzte esatendan bezela berac merezi bezelaco gobernuac. ¡Zorigaizto-co erriya! ¡Castigu izugarriya du!

Penordaña edo Talionecoa, da alde guztieta-coa, eta lege ordanecoa guztiyac arrapatzen ditu.

Uruguay sartu zanian iruco batzundean edo

laguntzan Brasil eta Errepublica Argentina-rekiñ, aiñ doacabe nola gogande eta noble dan Paraguay-en sartu eta berenganatzeco gertatu zan bezela gudan alegiñac egiñ ta iltzen zalaric nazio edo dierri ura, Uruguai-c, diogu, orduban egindaco becatua purgatzendu. (Bañan zer preziotan pagatzen duben!

Boza alchatzen degu ateratzeco Uriguay ori, dagon doacabezco izaeratic, eta len bezela jarrri dediñ biribillaturic gizon charar batzuben bidez galdutaco onoria eta oroitza onec aurre-ragoco izaeran serbitzeco, eracutziric nundic eta nola jun.

Madri-co egunoroco paper *El Imparcial* deitzen zayon eta geyena zabaltzen danac ondo jakiñen gañian egonic Ameriketaco gauzez, (zergatic an zeñec berriyac zuzen emanac izanic du beste ecarai bat alde dubena, bere iscribatzalle lenendicoa izatia Montevideo-co *La Colonia Española* deitzen zayon egunoroco paperarenaren anaya,) esaten zuben bere numero 6418 garrenan (azalduba urte ontaco Apirillaren amalabian): «Uruguay-tic artzen diran berriac armetan alchatutaco *churi* edo conservadorien galtzendearen gañian naizutenac azpiratu gobernu *coleresco* edo *radical* deitzen zayona, jauzkidatuda edo iya denbora aditzera emandu Buenos Aires-etaco egunoroco paper batec Misiones-eco lurraren jabetasunaren naikidaco erabakigabeco egite zarrac, beste nazpillabat Errepublica Argentina eta Brasil-



en artian sortzeco gisan jarriditubela.

Orain beñepin bi erri oyec ez dute nai izan-  
du pakean erabakitzeco birlean jarri, eta orren-  
gatic Brasile-co paper agiricoen esanac dira  
asmo gogorretacoac.

Len esandegun paper erbesteco Mentevi-  
deo-n danic zarrena da *La Colonia Española*,  
an ondekidatua edo jarriya Matias Alonso  
Criado jaunac, zein danletradu español jakin-  
tzuna eta iscribatzalle azcarra, eta guc izandu  
degu an iscribatzeco onorea, azaldu zanetic  
beste bat arren jabe egiñ dan arte, eta orren-  
gatic izandu degu moduba ango gertaeren  
gora berac jakiteco.

Orain bada contuban ondo artzeco zer gise-  
tan arkitzen diran Ego-aize edo Sur aldeco bi  
erri aundi oyec, gogoratu biarda bere gisa  
jarriziranetatican duten condaira. Ez degu au  
ere aitortuco gure buruz, zergatic oitubac  
gauden besteac duten nagusitasunekin eman-  
dako dakiratzetan gogarditzia.

Beste onelaco asco ezagututacoren artian  
jarrico gera len izendatutaco izcribatzalle ba-  
ten aldetic, zeñaren liburu *De la legislacion  
escolar* deritzayonaren 91-co orrican iracur-  
tzen dan Brasil eta Argentinac alcarren artian  
duten ieslotaria edo ezin icusiya guc aditzera  
eman genduen bezela liburu onen *Achurhintza*  
deitutaco buruan, izcribatu gendubenian Uru-  
guayen Brasileo ingurubetan erdaliri bat  
ondekidatzeco zan asmoaren gañian, eta al-

carren eziñ icusi ori obetiago azaltzenda orain-  
 dic estuasunetaco ergayetan eta aguro icusico  
 dira orren earrayac. Gauza an aiiñ argiya da  
 eta alaco antza artzen du, nun beti Brasilen  
 mende bizi dan Uruguay adizkidetasun usayian  
 gorroto aundi bat gordetzen diyola, orain jarri  
 da Republica Argentinaren jostallu bat balitz  
 bezela eta onen bidez artaratu da Paraguairi  
 berastetutzeco onen banderac eta beste garai-  
 senac Montevideo-n zitubenac laguntza izate-  
 co biartzen danian Brasilen contra eta Buenos  
 Aires-en alde, bañan gauza au naiz ondo buru-  
 taratuba izan, zalla izango da uztian aurrera  
 eramatia, zergatic abetaz gañera beste nazpilla  
 asco sortzen diran an, eta ez chikiyena erligi-  
 yuaren contucoa dana: onen gañian iscriba-  
 tzen zioten Cordoba-tic, Bilbao-co errebista  
*El Mensajero del Corazon de Jesús* deitzen sa-  
 yonari, azalduric escutitz au onela, azkeneco  
 Otzaillean: «Jarri dira escola protestantiac eta  
 Jaungoico gabiac deitzen zayotenac gazteri  
 on guztiya bide zuzenetic atera eta galtzeco:  
 maisu onac bota dituzte beren eracusteco le-  
 cubetatic, zergatic azaldu diran erlijioyo San-  
 tubaren aldecoac: Aita Santubac an zuben or-  
 decoa botadute errepublica artatic; apaizetaco  
 escolatzeco edo seminariuetaco ematen zuten  
 diruba kendu dute: agintariac ere utzi dituzte  
 alde batera Obispoac; eta itz batian bucatzeco  
 gaude erriljiyoaren contraco aiziac erama-  
 teco zorigaiztoan.»

Asco ichogon leike oneraco erritarren biotzetico, bañan guztiyac beldur eman biardu beren griñac beste nagusiric ez dutenac bizi diran tokian.

Sartzen bagera Americaren biotzian ¿zer icusten degu Paraguay-en?

Carlos Antonio Lopez jauna il zanian zituben Errepublikac, ontzi egitoco lecu on bat, ecartasuna edo aministraziyoa zegon ondoera-mana; agintarien buruban edo presidentziyan arkitzen zan ongitazuna; bazan seminariyua, latin eracusleac, escolac aski pagatubac; gaztelubac sutunpac edo cañoiric onenakiñ; tropa asco eta ondo iracasiya, eta orrengatic bacarrie luzatu ta gogoregindu Paraguay-c orrenbeste denboraco gerrari iru alcartutaco Montebideo, Buenos Aires eta Brasil aundi aberi.

¿Eta zertara etorrida azkeneraco bere auzocoen escubetan?

Condarretara.

Gaurco egunian ango erri buru Asuncion deritzayonac anbat ezdu emeretzi milla persona eta arkitzen da izaeric urrica garrienian.

Paraguay ichiya egon dan bezela ogeita amar urtian canpoco salerostearentzat eta beste erriyarekin icusbideric gabe, ez du icasi ta aurreratzecco eraric izan.

Asuncion-ec dituben ekidic edo echeric onenac Paraguay guztiyan bezela, dira Jesuiten denboretacoac, eta probinziyetan icusten diran batzubecc aundi eta edertazunez azaldu litezke,

ez erri buru orlan bacarrie, baiزية baita ere edozein America edo mundu alde ontaco erri burubetan.

Orañ iya eunki bat pasata gero, ekiñarteac aurreratu dutenian gauza miragarrizcoac emanic, ala ere, echakintzac edo arkitekturac izanic lancaikintz edo makinic onenac egiteco lanic arrigarrienac orañ eun urte sinistatuco etziranac, ez da arkitu Paraguay guztiyan nore alchatu eliza chiki bat.

Eta eun urtez atzerago arkitzen ziran eche-kindariac añ trebe, azcar eta jakintzunac, non egitenzituzen añ lan aundiyac nola diran Jesus ta Santa Rosa-ren elizac.

Jesusen Compañiyari gorrotu charra dioten etzayac, alsere eziñ ucatu dituztela Paraguay-co Jesuitac egindaco serbitze aundiyac ala errilijiyoari nola munduco elcartazun edo soziedadari, somatu zituzten ayentzat salgaiz-ta aundiyac galazitziagatic ango buru edo soberanoen laguntza zutena eta erritarraren naitasuna.

Beste gauzen artian sortu zuten bat, zabal-duric Jesuitac zoyatzen zirala Paraguay eman-kitatu edo libratzeco jarri nairic errege, ango irtuzi edo batzuben agintarizana, españolac ara jun ziranian.

Doscabezco Errepublica au itua aitzinda-rien andinayekin, beste bere aizpa gustiyac bezela erortzen eta azpiratzen dijus egunetic egunera bere aldameneco Brasil ta Argentina-



ren escubetan gelditu arte zeñec partituko duten pake pakian biyen artian.

Jesuitac an golditzeco modua izan bazuten, izan gozan Paraguay gaurco egunian erri aundi eder, almentzu eta aberatza.

Iritarauen edo politicaren griñalde charraz Jesuitac botatziarekiñ, lurperatuda guztiya.

Gauz abetan icasi bear degu ondo zer egiñ eta alegiñac egiñ irukitzeco Filipinetaco lur ugaritsuetan, bentzuten ez dan gerraria: gerrari indartzubena eta maitiena, zergatic duben arma guztitzat Gurutze Santuba, eta egi-  
tez caridades.

Contuban iruki biardegu Filipinetaco lecu ugaritsu ori zor diogula frailiai, eta batez ere Agustinoai.

Egiaco ditugun berriz, lecu ayetan dauden Aita Agustinoen contu arkitzen dira:

	<u>GAINTEMANAC.</u>	<u>ANIMAC.</u>
1782-co urtian. . . . .	146.117	584.469
1818 garrenian . . . . .	216.873	954.241
1845. . . . .	235.721	1.167.253
1871. . . . .	454.211	1.952.837

Erlijiyosco ordenac edo Jesuita ta frailien conpañiyac dira gauzie onenac eta biarrenac ango gobernuaren lenbizico agintariarentzat zuzen ta pakian bizitzeco, eta oranidic biarra-  
go gauzac nazpillatzen asten diranian.

Aurrera juan biardute bada lan abekiñ, eta ecarraitu duten laguntza on gustiya, zergatic an ezda beste iñor abec besteric jartzen

diranac bertaco jendiekin, serbituric bitarteco ayen eta españolen begiranza edo aministraziyoaren artian, nola jakiña dan ontaraco di joaztenac, izaten dirala Filipinetan egaztl pasacoac bezela.

Frailiac bacarric daude ainbatatubac erri arrekiñ, eta beretatic sortzen dira an biar diran gauza berri egoki guztiyac.

Ez du Españiac an beste zerbitzari gai obcorican.

Eta itz batian bucatzeco: Filipinetaco fraileac eziñ chandatu litezke beste inorekiñ; au da Allenzon-go dukearen esana.

Chile izanic ameriketaco errepubliketan pake goyenecua eta onduena gobernatua, egiten ditu alegiñ guztiyac ondo jartzeco, Peruta Boliviarekin izanduben anai arteco gerrac ecarridizean gaitzac erremendiatzeco, eta sayatzenda alduben modura bereganatzeco canpoco jendia edo emigracioa, zeñaren biar aundiyan dagon, bañan alperric, zergatic jendiac ez du joaera ura artu nai esagaturic ango izaera.

Kz da Peru izango emigracioco jendia bereganatuco dubena.

Chilenuac menderatuba azkeneco gerran, arkitzenda escasituba, beti buru gabe, eta nazpillan izateco antzian segurantziric gabe inon, naiz erri guztien buru dan Lima-n.

Egun batian esaten dute ango berriyac «Gobernu gizacoen contra alchatutaco jendiac

Cáceres jenerala buru dutela, dijoztela irabazten.

Gobernucotropac deseginac izandu dirala Ayacucho-n.

Cáceres jenerala inguratzen dala Lima-ra, nun egiten dituzten lan aundiyac, gogor arri-escudatzeco.

Sai daudela guda aundi bat izateco erri aldi artan.

Peruco biltzarkidac edo *congresuac* geraldिया emandiyola zituben bilguma edo *sesiyoi.*»

Beste egun batian berriz artzen dira onlaco berriyac: «guda gogor bat odola ugari ishuriric izan da; Peruco tropac Mas coronela buru dutela, gelditu dira deseginac; Cáceres-en jendia nagusitu da; jeneral onec alegiñ guztiyac egiten ditu izateco bera errepublicaco buru jabe edo presidente.

Guda izandutaco lecubac utzi bañan len, tropac errezituzten suponpa edo bonba eta petroleorekiñ, Huanta eta Huamagilla-co erriyac Ayacucho-co lurretan.

Emen icustenda ango gobernucotroparen desegokitasuna, eta ortic esagutzenda zer segurantza izan lezaken batec an.

Bolivia-co errepublica sartuba dagola Paraguay-coa bezela sur-americanaco oztu gartea edo iya uribitarte danaren erdiyan, icustenditu oso icaraturic egun batian ta bestian illac erortzen buru edo presidente diranac, politi-

caco gorrutubac pagatutaco puñala dala bide.

*Anglo-Brasilian Times*-ec dionez 1883 garren Abenduco 15-ren lumeroan, *El Teléfono* deritzayon egunoroco paperaren iscribatzaille lenendico Valverde jauna, ilda ango urcatzailiac eman dizean azoteac gatic, gobernuac agin daric usteric nra botatzeco lan egiten zubela. Batzubez esaten dute 200 azote artu zitubela galdetzen zitzayona zalatu bañan len, eta bestiac adirazitzen dute gogor egiñ zubela ¡400! artu arte.

Eta jendiarentzat errespetoric ez dala, conturatzen da tropac ere ez zuzentazunic izatian.

Soldadubari eracusteco ematen dizcate maiz belarrondocuac, baita ere sabllarekiñ, eta inoiztic inoizera azotiac tanhor baten gañian.

¡Zenbat eta zenbat gelditzen dira betico lurrrian gaztigu char abekiñ!

¡Eta beste zenbat ichura galdu ta baldarrac beren bizi guztiraco!

Bucatzeco bada gauza au, icusi zangun zer esaten duben Uruguay-co iscribatzaille Jose Pedro Varela jaunac, ainbeste bider aitatuco bere liburu *De la legislacion escolar* deritzayoneco 20 garren orrican eta 36-co lerroan: «dengu armetaco jende guchi, oso guchi bera giza izan naiduben erri batentzat, eta oraindic daczakigu lecu guztiyac illuntasunian ezerere icasi gabe, eta indar guztiyac galtzen



ditugu geronen artian gaitza bata besteari egiñaz....»

Au bera esan leike beste sur-americanoc lecu-bac gatic.

Nundic gertatzendan, erri onen izaera dala burruacan eta batico gerran bizitzea.

Eta biyen bitarteco tartietan nairic bacuitza bere jabe izan gñola bizitu dira erri abec? ¡A! samiña da esatia, bañan arkitu dira bildurrez betetaco pake mintzuarekin, edo obien barrengoa dirudienarekin.

Gure aldetic, esaten du Varela jaunac, naico genduke arkitu gure condairan izateco erau gauzac, egintzac eta icaz bideac eracusteco gaudela ez jakiñian edo gezurtatzeco, bañan alperric billatu ditugu.»

Bildurican bada batian gauz-abec ematen duten izaera, ez degu biar ez dan bezela orren errez esango guztiyen culpante gobernubac dirala iscribatzalle onec esaten duben bezela; «Nolanaico izaera arkitzen dala erri batian, gobernua ren outasunac edo chartasunac egingo du izaeran gertaturic erri atzeratubac onela arkitzen diran bitartian ezin izango dutelagobernua erri jakiñ da aurreratubetan bezala, bañan gobernubetan ere dago aldamenazitzia jendia jarriric aurreratuzeco bidian.

Ez dago bada gobernua ren escuban bacarric zuzen edo oker erribat ienstia eta aiñ utz egi-ton da iduritzian gobernatic bacarric dato-rrera erribaten zoriona edo gaiztoa, nola go-

goan jartzia bati, berac duben doacal etasuna etorriyola emandizcaten conseju charra gatic eta ez berac escatu ditubelaco, edo artu, aitu ta jarraitu.

Alada: «Gobernu charrac egiten badute erriyaren zorigaiztotasuna, nola gertatzen da amasei milloi gizonec, amalau errepubliketan partitubac eta zabalduac America egoi aldeco guztiyan, bere gisa bizituric irurogei urtian, ezin jarri izandu dutela gobernu on bat, luzatzeco moducoa, beren naspillac eta gora bera gustien artian? Ez da bada au izango gobernuaren utzac gatic, baizic errepublicaren izaera charragatic.»

Alaere aditzera eman biar degu, guc gauza abec artzen ditugun liburuba azaldu ta gero Plata-n egiten dirala alegin anndiyac jendiarri eracuzteco eta jakintasuna zabaltzeco, nola geroe ondo icusidegun izanic, Montevideoco escoletaco esaminatzalle, ta ala aditzera emandegu *Revista Oficial de I. P.* deritzayon pape-retan jarritaco iscributan, lumero 152-an Mayatzeco 1878-ren 19-coa izanic ayetaco bat. Bañan onlaco denbora guchiyan ez dira egiten erriyac.

«Kta denborac berekiñ ez du eracusten ezin gobernu onic izan leikela, erriyac illuntasunian, ezer icasi ta aurreratu gabe dauden bitartian?»

Jendiaren izaeraz, bere oituretan, jakintasunian eta beste aben antzeco gauzetan billatu

biardira diran ecarayac erriyac zoriecoac  
edo doacabezcoac isateco.

Esan leike America dala aur bat arkitzen  
dana emendic dijoazten jendien beso indar-  
tzenen biarrian, eta abec gabe geldituco litza-  
kela beti ume.

## AMAR GARREN BURUA.

---

### ANGO SALEROSIEN IZAERA

---

Lecu ontan bi itz esatera guaz Sur-America-  
co salerosien izaeraren gañian, aditzera emateco  
aldegun moduric oneinan, zer esperantza  
izan lezateken emengo jendiac gauz onekiñ.

Zer gisetan arkitzen dan an diru contu ori,  
da gauza bat munduco mercatar guztiyac da-  
kitena, bañan biardute ere jakiñ emendic ara  
joateco asmoetan daudenac.

An salerosiyentzat guztiyac dira trabac ta  
zailtasunac. An jarridiran cargac (100-eco 50  
gauzaren baliyoan) sarrera emateco azten di-  
ran gauza batzuberi, lecu ascotan nastatu ta  
atzerazitzen dute salerosiyen bideac.

Gañera dirubaren ordeiz jarritaco papera, di-  
rutan biurtzeco gaitza dana, dabill ugariro  
eta asco galtzen du salerosileac naiz ez ainbes-



te nola aduanetaco escatzen dituztenac, eta ematen zayote tratu charra salerosiyan sayatzen dan jendiari, eta batetic bestera oramateco jeneroac dabiltzanari.

America Sur-ecoac biarditu ontzi asco geracoac ez diranac, ez orain arkitzen dan bezela pagatzeco biarrian, diruric geyenac beste lecu estranjeroetaco ontziyari emanic euntatic amar, gauzac eraman ecarrierazitziatic.

Eta oraindic ere beste oker aundi bat ere bada.

Ango gauza guchic pagatu lezateke eun legua bidez eramatiac ecartzen duben gustuba, bañan badira erriyo asco ondo guchicoac izanic, ontzi ur azpiyan guchi sartzen diranac, eraman lezatekenac errez ibilliric itzazotic 300 leguara dauden lecubetan, eta icuturic mundu ontaco ontziyac gelditzen diran portubac.

Goyenian pagatzen da Paraguatic Buenos Aires- etara eramatiagatic (noraco dauden 300 legua erriyoz) 10 duro bacarric *toneladaco* edo 55 arruaco, eta lurrez onen besteco bidian Tucuman-etic asi ta San Juana, costatzen da lau edo bost bider geyago naiz bideric geyena ibilli burni bidean *Argentinaco Pampetatic*.

Paraguay-co this geyago nai izaten da China-coa bañon, eta erosiliteke Asuncion-en bi *penikian* edo erriala bañan guchiyagoan libraco danic onena, bañan ateratzeco derechoac igotzen dira iya euneco eunera bere

baliyotic. Argentinaco probinzi ascoc ematen dute ardoric onena eta oso ugari, gertaturic lurrari zimaurtzat ematia nun sarturic ez dutenian: ardoric onenac dira Rioja, San Juan ta Catamarca-ren izenakiñ esagutzen diranac, dutenac Siciliyaco ardoaren antza ta gustoa, eta sutaco lurretan egiten diran beste ardoena. Bañan nola biltzen diran itsas-portuetatic 300 legua dauden lecubetan eta beste ainbeste erriyoz pasalitezkenetic, zalla da biarduten prochu ona izatia.

Ori bera esan liteke Bolivia-co Yungas-ec ematen duben café ederragatic, naiz izan parrerie gabia eta Buenos Aires-etan pagatzen dana 50 errial librace.

Beste aldera asco guchituba izan biardu argentinaco salerosiyac, aurrian dacagun iscribatutaco liburuchu chiki batec, *Colonizacion de la república de Chile* deritzayonac, esaten dubenian, errepublican azaltzendala 1881 garringo urtian andie aterataco gauzac, host milloi durotan geyago argentinan baño.

Beste banerne edo lur emanen balio aundi-coa izatenda Sur-America-n deitzen zayona *quina*, eta batez ere arkitzen da Peru-n, Bolivia-n eta Colombia-n; bañan Londres-co mercatariac asperturic ainbeste diru pagatzez amabi urtian azal abec gatic, zalantzan ibilduric beti, izango zan edo ez, utzi ditu lecu abec eta junda beste mercatuetara, nun arkitzen dituben aiñ merke nola geyago costaco litez-

kean eramatia bacarric Sur-Americaco azalac.

Orra zer gisetan dauden or gauza abec.

Eta orrela diru contuba jechiya arkituric, beste mundu guztiyac begidatzen diote Sur-Americari kezcarekiñ ezkeñiyac egiteco.

Gerotie ez dira gauzac obetoago jarri Pedro II-ren erriarentzat.

Lurreco bilkera charrac ecartzen dituzte betekiñ denbora okerrac, eta au icusiya dago berriro Brasil-en.

Cafia dalaric jakiña dan bezela lenbizico gauza Brasil-en, munduban geyena biltzendan lecuba iscribatuta icusi degun bezela, emanic 1880 garrengo urtian 280.000 *tonelada*, cafia landatzen duten ascoc iraun dute ezkerac bilkera charrari eta merketasunari.

Azucria ta algodoya, cafia bezela dirade an emangille aundiyac, bañan lecu ascotan, batzubetan bero icaragarritzcoac gatic eta bestietan maizco eudiyac gatic, izaten dira urtiac galtzen diranac gogotic, eman gabe uste zainbat.

Pernanbuco izanic lenendico lecuba azucriarentzat, 1882-co bilkera icustendegunez, izantzan 554,163 sacu 72 kiloco bacuitza güchiyago-cos.

Aditzera emateco zer alegiñac egiten diran probinzi outan azucrientzat, jakiñ biarda ditubela 2000 *ingenio*, eta batzube beren makinakin.

An egiten dute beste barrengo lecubetan bezela azucria.

Cafia ta azucriac galdu preziyoz jechidiran bezela, galdu dutere algodoyac. Bañan gaitzabec eracutzi biardiote Brasileñoari, ez dutela gauza batian bacarric sayatu biar.

Bide charrac eta modu moldacaitzac bate-tic bestera banerneac eramateco saldu biardiran lecura, dira okerric aundiyenetacoac lur ayentzat. Brasil-co alde batzubetan dira biddiac munduban arkitulitezkean chatarrenac; esan leike India-n bañan okerragoac dirala.

Bilkera ugari bat izatenda an zorigaizto bat bezela, zergatic baliyoa ainbeste jeiztenda orduban, nun ez duten eramateco costatzen dannen diruric ematen, eta orduban ereintaco lecuban bertan usteltzen dira guztiyac.

Alare eman biartzayo duben mereciya inperiyo artaco burubari, egiten dituben alegiñac gatic biddiac iriki ta ontzeco beste probinzi aldietara.

Ala gaurco egunian errezago usten dituzte gauza abec egiteco modubac Ameriketa artan uste ez liteken gisan, eta batzubetan gobernuac berac fiyatzen diyote ekida abec artzen dituzten jendeari.

Zalla izan goda onenian asmoetan dituzten burni bide guztiyac egitea, bañan egiyaz prochu aundicoac izango dira erri arrentzat, battez ere gauzac eramane-carri azitzeco gastuba, izaten bada merke samarra.



Ango salerosiyen izaera ez da gain gañecoa. Gauza ecartzeco modubac alde ascotara, escasac dira. Preziyo iguac ortaraco izanic, eta *seguruac* asco pagaturic, *derechuac* ere gogorrac. Gañera asco diran gauza bateraco, batac besteari okerra ecartzen diyo eta saltzen dira gauzac, denbora luzera pagatzaco eran, eta naiz urte beteco izan, fiyantziac gabe orduraco *cambiyuac* galdu azico dioten edo ez irabazi biartzubena.

Diruba escutatuda Brasil-en, eta papera diru ordañecuac galdu du bere baliyotic irugarren partia, eta gaitza aben erremedyua ez da aldian icusten zergatic bi iturri geyena ematen zutenac Chillen ichi diran, legortu diran, izanic *nitratua* ta *cobria*, zenac dauden ugari bañan joaeric gabe.

Chillec urte ontaco illbeltzaco lenbizico egunian sortzituben 6.974.000 libra esterlina edo bost durocoa bacoitza.

Beste gauza batec ere calte asco ecartzen diyo Chilleri, contrabanduac; asco egiñican, zergatic aduanetaco derechoac oso igoac diran, gertaturican gobernoac artu biardituben dirubac mermatzen dirala eta salerosico jende fede onecoari ere gaitz aundiya egiten diyola.

Mundu berri ortaco Estadubac oitudira gauzac egitera batere fiyantziac gabe.

Diru artzeko compromisoac egiñic Londres-ekiñ iya batere segurantzic gabe, orren errez

diruba artziac jarri izan ditu estuasunetan Brasil-coac.

Beste orrenbeste gertatzen zayote Ameriketaco errepublica geyenai, eta urte asco dala dijua Brasil geruago ta okerrago, eta alaere Inglatterra-c eman izandu diyo diruba, zituben estuasunetan, eta diru emantzalle ingelesac alegiñ guztiyac egiñic eta makiñabat *libra esterlina* luzaturic, zutic iruki aziditu ango *creditu* edo izen ona. Au Brasilenuentzat izanduda pozcarria, bañan ez dirubari contu artzeco bidiaç eracusteco, eta ala ango gobernubac nola aiñ aisa artzen zuben diruba, aiñ aisa usten zuben escu artetican joaten, eta berialaco biarretatic ateratzeco modubac izan ezkerro, etzan gogoratzen bigaramonian zer etorri zitekian.

Esaten dan bezela, danian bonbon eta ozta-nian egon.

Bañan izaera au ezagutu danian, guztiyac gaizki arkitu dute, eta oraiñ Brasileco *creditoc* artudu colpe aundibat.

Azkeneco diru artzia ez da bete, ta aurrera eraman bestietan bezela, eta an bertan errico enprestitu edo diru artzia egiteco oso zalla da, eta orain ditu gobernuaç damutasunac franco len egiña gatic, eta orain conturatu nailuke izaera onian jartzeco gauza ayec.

Brasil-co lengo istoriyac edo condairac du berekin aski doacabe, eta erriya arkitzen da malcarrot aundi baten antzian, salerosiyac

guchituric, esan ditugun gauzen bidez, eta baita bertacoen alperkeriz.

Azkeneco urte abetan icusi dira erortzen best: bizi bidetaco fabricac bata bestiaren urren, eta gaurco egunian ezda besteric gelditzen, baizic lurrac eta mina edo meatzeac ematen dutena, eta gauz abetatic batetan bacarric eramatenda erritic canporatzen dan guztiyaren erdiya.

Ez da bada arritzecoa nola Estaduben errentac asco jechi diran aduanetaco sarrerac naiz igo azkenecuontan, amandutela derechuac, 824,748 *peso fuerte* edo duro guchiyago 1882-co urtian baño eta 2.241,992 guchiyago 1881 garrenguan baño.

Alare lumero abec bacarric ez dute ondo aditzera ematen zebat galdudan lecu artaco salerosiyen izaera. Estaduben zorrac igotziarekin, aministrasiyoaren gastuba eta beste sailtazanac ondatu ditu, eta zorpian arkitzendira landatzalliac bancu edo diruba emateco echia-kin.

Bancubac ez dute orain len bezela seguran-tzic.

Orain dala illabete batzubeac, urte bete bañon pishcabac gayago, iduriz 53 milloi duro zituzten sei bancuren artian, zeuden 93.225.000 artubac jendietatic depositu edo gordetzeco bidez, eta abetatic erdiya atera ziteikiela naizanian lendic abisoric edo contuban jarri gabe. Bancu abec orrenbeste diruen flyantza emate-

co, zituzten cajan sei milloi ta larogeita amasei milla duro, edo euntatic sei bañan zerbait geshiago.

Bi bancuc zituzten paperetan *Bonos del Tesoro nacional* deitzen diotenetan, 46 milloi ta amar millaren baliyoac, eta gauza onec eracustera ematendu nola alde egiñ duben dirubac.

Gobernua dago legez escubidetua zabaltzeco 16 milloi, dituben errenten contu, eta diradienez bancubac jaso ditu paper *pagariac* iru bider geyagoco baliyuen contuban.

Gaitz izango da gobernuac paper oyec pagatzeco diruba biltzen jutia, zergatic dituben errentac ez diran aski dituben bearrac betetzeco, eta nola diruba ezin ateraco dubenez bada calte aundiyakin eta euneco gogotic pagaturic, berriz arkitucoda len bezela papera ta papera zabaldu biarrian.

Nola bancubac dauden esaten dan bezela escu ta ancac loturie, guchi, chit guchi lagandu lezagoteke salerosiyen bidean.

Dirubari jarri diyote euntatic biren carga illeco, eta zalla da diruba arkitzia euntatic amabiren contuban urteco.

Esatenda casien contubetan dabilzcanac bereganatu dutela diru egiñic geyena.

Mercatari abec erosi dituste cafe cantidade aundiyac gordetzeco.

Bancubac aurretic emanizcaten diru pillac gordetzen dituzta casia bezela, ichogonic ayen



baliyuac igotzeco eta escatzalle asco izangodan asmoetan.

Alaere prezuyuac ez dira oraindic igo, baizic jechi egin dira oraindic geyago cafiaren mercatariac erosi zutenian baño, eta nola bancubac escatu duten beren diruba, saldu biar izandu dituzte galera aundiarekin. Orrela bucatu da gauza au; bañan malcarrot onec, ez du gafiñan datorren beste gogorraren antzic ere.

Estranjerico *bono* clase batzubec dituztenac Inlaterra-n, ez daude ehit contentu orain dala bi urte gobernu conzientzi zabalecoac egin dituzten arautakin.

Egon litezke contentu, icusiric erri oyec esagutubac eta ontzaz emanac dituztela beren artzecoac, eta ala dutela zerbait esperantza jasotzeco galduba uste zuten diruba; bañan gobernu zorretan zeudenac atera badira nazpill oye-tatic, izanduda bestien bizcarretic.

Jartzen badegu icusbideraco Guatemala-co gobernua, arkituco degu emen diru artzeco zeudenac, contuban irukiric diruben irabaziyac artzen zituztela, ez dute bacarric utzi paper *cupones* doitzen zayoten dirubaren irabaziyac eta atzeratubac jasotzeco zecazkitenac diru mordoscan biurtzeco, baizic baitaere emandute baimena, errepublicac irukitzeco bere escubetan bere biarrentzat, beste paper *bono* berriro biurtubac.

Gauza onec nola duben emaitzaren antza

zerbait, ez da gogo aundiyakin eta begi onakin icusten.

Uruguay ere da beste erri bat nai ditubena pagatu bere eman bearrac alduben diruric guchiyonarekin, eta eskerrac diru artzeco zutenontasunari, aterada estuasunetic, pagaturic euneco biterdi zuben zorretatic, sei urtian euntatic sei pagatu biartzen zuben ordañan, bañan berriz etorrico dala urte ontan euntatic seyac ematera.

Arkitu ditubenian orren biguñac bere diru artzalliac, escatudu oraiñ luzatzeco gisa ortan, euntatic bi terdiyan beste bost urteraco, eta naiz biar biar bateaco artu duben asmua euntatic iru emateco ere, zor onen gañian, escatzendugeyago pagatzen duben erdiyan, ez emateco paper oyec dituztenai zõeac diran ordiyorren jabiac, baizic orrekiñ erosteco eta bucaera emateco beste paper, *bonos-en* contubari.

Au ezta bada beste gauzic, baizic diru artzallien bizcarretic pagatzia Uruguiaco zorra artutaco diruben gañian, berriz artzia pagatu biarran, zergatic ontaraco ez duben nai gubernuac ardipat ere eman.

Bañan ez da batere arritzecoa nola diru artzalle estranjeruac ez diran moldatu gauz onekiñ, zergatic aspertubac dauden lendic antz ontaco egintzaz.

Onlaco eskeñiya egitiac bada diru artzalliar, ez diyo batere izen onic ematen errepublicaco izaerari eta ez ere ango gubernuco jen-

dearen esagüera eta onrari, esatendu. *British Trade Journal* Londrescoac bere 1883 garren Otzavillaren amazapiyan argiratuco paper ordian.

Azkeneco berriyac Mayatzaren amabicoac, dira urriaren trucatzia igo zala 52 0/0 -tic 54-año, ala nola zan trucabidaco diruba; eta canporaco ezintzala trugaric egiñ. Mercatubaren izaera zala charra eta egun batotic bestera sortu litezkela malcarrot soñu aundicoac. Zeuden ustian igoco zala 60 0/0 -ra urriaren trucada.

Dana dala, kendu biarco dute burutic betico America alde ortan duten ustia, badala mundu alde ontan nai aña diru emateco pagatzen estuben edozein gobernuri, eta gauza abengatic ez dira diru emantzalliac bacarric gogorrigo jarrico icusiric gobernuac ez dutela pagatzen biardan bezela, haizic ere conturatneo dira ez dutela diruric eman biar americaco errepublica chiki oyentzat, ez bada munduban beste inon jarri eziñ duten orduban.

Begiratzen badegu errepublicaric aundiye-nera, au da, Argentina-ra, icusico degu an ere diruben izaera ori ez dala batore alayagua.

Utzi dute *Banco nacional* edo erricoaren billetien biurkera, eta au bera eginda Buenos-Aires-etaco probinziyan, aben escaeren bidez, jarriric zabaltzeco 27 milloi duroren contuba; paperetan *Banco nacional*-ari utzi zayo ori be-  
ra egitia 28 milloiekin.

Papera au artzia jarri dute premiazcoa, eta dirutan biurtziac eracutzi ta larogei ta amar egunera trucaturican oso garizti, eta Montevideo-n herriz eracusteracoan, euneco ogei ta bost edo ogeita seiren galdubarekiñ, igorican urriaren trucaera euntatic ogei ta amaicara.

Abec dira espainico Ameriketari chucaturaco baloriac ogei urte abetan:

Diru artubetan.	Diru bidetan.	6033174.	
Blo de la Plata-n. . . . .	L' 23.850,000	L' 17.400,000	L' 41.250,000
Chile-n. . . . .	7.600,000	6.300,000	13.900,000
Peru-n. . . . .	40.350,000	4.200,000	44.550,000
America Central-en.	18.600,000	7.800,000	26.400,000
	90.400,000	35.700,000	126.100,000

Icaragarrizco azken gauza bat.

Goyan aditzera ematen degun dirutic, iya euntatic berrogeiren partia galduda batere biltzeco esperantzic gabe.

Saltzeco egunoro azaltzen diran paper batzubez Londres-co diru contutaco argitaratzen diran paperetan, ez dute argitaratzeco jarri dan paperen baliyoric ere.

Eta itz batian esateco, badira bai amar urte, icusiric zenbat jende Ameriketetzen zan mundu alde ontatic, erriyo urrezcoaren gisaco dirubac bialtzen dirala Ameriketara, (Mr. Dai-reaux-ec iscribatzen zubenez bere baliyo aundi-yenetaco errevista frantzis *Revue des deux mondes* deritzayon batian, azalduba 1875-co Urriyaren 15-ian eta esanic): Inlaterra-c.



Frantziyac eta Italiyac lizentziya emanic *sw*  
edo ego aize aldeco Ameriketaco erriyari eru-  
kitzeco jende mercatariyac ara eramanazitze-  
co alde ontaco semiac, eta orrela oyeri conturic  
artu gabe gobernuac berac errez diru ecartziac  
egiteco antzian jartziac arkituric onen bia-  
rrian, dira gobernuac gauza onengatican tra-  
talari alde batzubeac, eta jartzen dira biarrian  
alduten segurantziric aundiena emateco jen-  
de ayeri, zein beren gisa eta gogua zutelaco  
utziric beren erri maitea uste zuten prochu-  
engatic, alde egin zioten eta ez dute erokeriye-  
tan ondatu biar lanac aurreratzeco artu zuten  
diruba.

Duten zor ori cunplitzen ez duten egunian  
erri zar oyec gabetic goizera beren jabe eginic  
biurtu diranac errepublica gaztietan, sortuco  
dituzte naspilla aundiyac naiduten izaera be-  
rriyentzat ez badute beste bideric artzen.»

¿Etorrida ordubura?

¡Norc daki!

AMAICAGARREN BURUA.

JENDE CHORATZALLE, ARRAPATZALLE ETA  
ERAMANTZALLEAC.

Guazen orain itz egitera españiyan dan gaitz aundi baten gañian, batezere, euscal-naparrren erriyan, eta esagutzendana *Ameriketaratze*co jende arrapatzalli-en izenarekiñ.

Ez genduke ezerereesan biarric joera ori artuco baluteke jendeac biarrac eraman aziric, beste gauzen artian, erriyac gañez arkitziagatic jende geyegirekiñ eta bizibide zalla icusiric,juango balira Ameriketaco lecu urruti aye-tara utziric jayotaco lur maitea, beren gogoz eta zer egiten dutenen jakiñen gañian, billatzen ote duten sorterriyan arkitzen ez dutena.

Bañan arrazoi abec ez dira icusten.

Gure erriya izanic duben aicetorkis gozakiyagoa beste Europa-co Norte edo ifar aldian

diran naziyo edo erriyac baño, eta asco erdi aldecoac bañan ere bai, ez diyo abetaco iñori eramaten duben jendez,—ez badira Rusia ta Suecia—contuban arturic onemeste biztanle legua cuadratuco. Ala gertatzenda izanic Pontvedraco probinziya jenderic geyena dubenetacoa, ditu lau bider biztanle guchiyago Bélgica-c baño, izanic gisa ortan beste alde-tan eta guchi gora bera emanic ain jende guchi, nola duten gure beste probinzi Badajoz ta Palencia-c.

Jakiña da gañera Norte eta Noroeste, edo, Ifar eta sortegi aldeco nicetaco lecutic. Ameriketaratzen dala jenderic geyena, batezere langilleac lecu ayen esagueric batere izan gabe, eta gure erriyac utziric ustutac bear-tubac.

Ala bada, gure erritar ango joera artzen dutenac ez badira juten bearran indarrarian, eta dijuazen tokiyen esagueric ez badute, begiyen aurrian dago, nora dijoazten jakiñ gabe-co lecubetara juteco artzen duten asmo gogor ori, dala beste izaeraco gaienbatzubengatic, nola diran, mercatari jende arrapatza-llion eskeñi gezurtico choragarriac gatic, zeñec beren esaerakiñ, sinistu azitzen diyoten arkituco dituztela urrutico lur ayetan ametzetan ere seculan burutaratzen ez diran dirutzac, eta mercatari abec egiten dituzte aldu-ten alegiñ guztiyac jendia choratu ta berotzeco, zergatic ameriketaco gobernubetatic artzen



duten onemesteco bat ara eramenten duten bacoitzarengatic.

Itz batian esateco, moro edo beltzac balira bezelashen.

Oker aundico gertaera char abec erautzitze-co, bi bide daude: lenbizicoa guc artudeguna, dana, *zintzo aditzera ematiz nola Amerikelarazten diranac, arkitzen dituzten gezur goshu oyec trucatubac egi saminetan*, edo Marques del Riscal gizon argidotarrac esatentziguna bere escutitz batean lenbizico aldiz argitaratuzanian erderaz liburucho au *«jendiaren contuban jarrizeruste gabeco zorigaiztoac isaten dituzten ara joaten diranac.»* Beste bidea da aiñ egoki soma andizeta on biarrez artu dubena azkenecuontan D. Patricio Aguirre Tejadaco jaun gobernadore Guipuzcoacoac, zeña dan gizon jakintsu, erricortasunez betea eta errespagarria.

Baitare Iruña edo Pamplonaco Obispo beacurgarri errizale eta jakintzan D. José Oliver eta Hurtado jaun chit argidotarrac, eta Naparruaco Diputaziyo chit geidiatiyac makiñabat aldiz egiñ dituztenac gure erritar anai maiteen mesederaco, argirazituric baliyo ascoco iscribuac, asmo choro oyetatic atzeratze-co eta jende errez sinistalariyari eracusteco mercatariyen lan oyec zer gisatacoac diran.

Zer biarrac diran neurri gogorrac artizia agintarien aldetic, esagutzenda beriala icus-



tian nola eta zenbat andizkiratudan Ameriketaco joaera.

Ez dakigu oraindican zer erantzun duten probinzi guztietan *Emigraciones*-en deitura-kiñ egiñ zayoten galdean gobernuañ aldetic jarri duben *questionario*, edo, galde erantzunan langillearen izaeren gañean.

Arabatic erantzun dute, ango jendearen sei garren partia Ameriketara juandala, eta gauz onec berekiñ daczkiyen gaitzac dira tristeac, arkiturican erri batzubetan jabiac ezin maiz-terric bilduric dituzten lurretaco, eta gure aldetic esan genczauke gañera, egunetic egunera dijoztela geyago erriyac utseratzen jendeac Amerikaraco artzen duben gogo char orrengatic.

Gure erri chiquietan, eta baitare aundi batzubetan, arkitzen dira lecu batzubez jende azcarra ez dan artian aditzera emateco Ameriketaco ametz choroac, egiyac balira bezela, eta lecu oyetan esan leike dagoala jendia biltzeco bandera, eramana zitezco beren lur maiteco semeac urratietara, utzitic legua uscotara gurasoaren naitasun gozoa, edo nesca mutill gazteac munduco esagüeric ez dutenac eta orrengatic errezenac sinisteco egiten dizcacaten ezkeñi choragarriyac dirubac aguro ta galanki irabazteco.

Biarda egon oso ernai mercatu lotza aundico au egiten duten jendiaren sareetan ez erortzeco, ala gizonac nola emacumeac, naiz

egun batian edo beste icusi eheco estuasun batzubeac, bañan eramanic erlijiyo santubac agintzen duben bezela eta obetoago izatecoesperantzakiñ, zergatic zerbaitescasiyan daudenai burubac berotzen zayote lenago, ete beren biyotzetan jayotzenda gogoa esagutzen ez dan lecubetan topatzeco gauza aundi oyec, eta ala jartzen dira itsaz-bidean, beren ezagüera guchiyan contuban artu gabe zer estuasun gogorretan arkitulitezkean, gezurtizco itzac zer diran, eta zer, sorterritic alde egitia.

Ez dago gobernucio gizonen escubetan nailitezken bezelaco modubac jartzia castigatzeco gaitz abec, bañan orregatic beragatic biarda beti gogor egiñ gisa guztitara, euscal-erri zar ontaco gizon onradu eta beren lurra maite dutenen aldetic, gezurren aurrian egiya gogoz esan ta argitaraturic.

Asmo on aben gañean gizon buru onezcoac eta Españiari naikida diotenac, gogotic itz egiñ dute mercatu zatar oyegatic, eta ezeren cupidic gabe diru gosiac eramanic gauza abentan jartzen diran jendearen contra.

Julio Nombela izena duben izcriba'zalle eza gutubac; beste izcribatzalle bicaiñ José Maria Pereda-c, bere liburu oderretatic ascotan; agintari zuzen ta dogaic batzubeac, batezere, Gipuzcoan ta Naparruan beren argitaratutaco ta zabalzeco izcribu onekiñ; guztiyac gogotic gogor egiñ diote gaitz oni, usten dubena eus-

cal-erriya negarrez, len esan degun bezela, escasitu ta ezerezian.

Orain bada, agintariac eziñ badute nailute-ken bezela castigatu mercatari cupidic gabeccen egiten ezin aldezateke galarazi mercatu au? Ez. Bañan ezcontuban ernai egon? Bai. ¿Guchituco litzake orduban jendien joaera? Jakiña da bayetz. ¿Agintariac galarazi lezateke jendia eramateco gayan? Esandegu ezetz: orain diran legiac jarriyac osuan bizibide onaren aziyeretara, daude bizimodubetaco gauzac egiñ alezatekenen libertaderaco errespetuaren aldetic, eta orrengatic ezin lezateke agintariac beste gauzic, alduten ernayenac contu artzen egotia baizic.

Bañan ¿biardute ta balezateke contu au artu? Bai. Eta ala erascustendu gauza guztiyetan noizic heingo gertaerac, azalduric batzubetan okerrac eta engañuac, ta jarduten badegu jendia eramateco mercatu orren gañian, arkituco degu dala guztitara bizi bide bat beste edozeiñ bizibide bezela, beste alderantzic gabe, baizic dala au errezena charkeriyac egiteco; eta ala orain dala denbora guchi Coruña-co agintariac arrapatu zuten *jenle eramantzalle* bat, ematen zitubela pasaporte ta beste chartel, faltzoac itz legunakiñ bereganatzen zituben jende doacabiai. Guipúzcoan agintarien ordeco, edo, poliziyac, bere contu artu zuben beste bat eta gañera sei mutill amalau urtetic ogei bitartecoac arrezeramaskiyenac, Montevideo-

co bidean jartzeco asmoetan, eta geldiaz zituztenetic, mutill aundiyenac edo soldadu gayac bigaldu zituzten bacuiza beren lecuco Capitan jeneralengana, chikiyenac bacuitzen probinzico Gobernadore civillengana beren familiyaren escubetan jartzeco, eta aben buru zijoana eraman zuten Juezarengana.

Gañera poliziyac artu zituben bere contu, beste *jende eramantzalliac*, zituztenac paper faltzoac, eta ayetaco batec izugarrizco cuchillo aundi bat eta tiro ascoco pistola.

Naparruan progatu zayo beste *jende eramantzalle* bati, etzubela nai paperic egiñ escribuen aurrean itzez mutill gazte Plata-ra eraman naizuben bati agindu zizcanen agiritzat, nundic esagutzen dan gezurrezco ezkeñiac izango zirala denac edo geyenac, eta beste lecu ascotan ere izan dituzte mercatari abec zer icusi bearrac agintariakiñ beren gauza oker ta itsuskeriac gatic.

Armetan bat alchatzia bere erriyaren contra; saldu edo eman gaztelubac edo beste escudatzeco tokiyac; tropac churicaturic eramanazi bezte aldecotara; eta beste gauza aben antze-coac, dira arauzte edo gaitz aundiyac egillearen gañera izen char bat ecartzen dutenac, beren burubac zikinduric eta jende guztiya oyen ondotic alderaziric.

Orra bada, gauza abec orren charrac izanic, okerraguac dira oraindican bazerritarren zenzu guchi ta biotz onez baliyatzen diranac, edo,



erri aunditaco jende jakin escasico langilleac diruba gogotic izateco duten gutiziyaz, gezurrezco ezkiñi choragarriyakiñ burutarazitzia seculaco bizimodu ona ecarrico dutela aurre-ragoco. Eta okerrago edo gaizkiegintzalleago dira, zergatic lenbizicoac salkindea edo traizioa egiteco, jartzen diran irrisco gogorrian, eta jocatzen duten ascotan beren biziya, bañan mercatari *jende eramanzalleac* naiz ecarri bestiac bezela calte ta gaitz aundiya: erriyari, egiten duten batere orrelaco estuasunic gabe, jocatoric segurutic eta beren gorputzeco lar-rubarekiñ erantzuteco bildurric gabe.

Garbiya da arrazoya.

Gaitz aundiya ecartzen diote orriyari sustrayetic dituben indar ugariyac ateratziarekiñ, eramamaz bere albotic beste itsas aldera, millaca euscaldun besoac probinziyac onditasun ta aberastasunarentzat biardituztenac, usturic gure mendi eder tarteac, eta ustutasun onekiñ escasituric bizi bideac, zergatic jakiña dan jendia guchitzen dan lecuban ondatzen dala erriya.

Eta egite gaizto abec aski ez balira bezela azaltzeco gizonoyen egite itzuzkerico guztiya, osatu biardegu lan au aditzera emanic, nola orremeste seme gure probinziyatic ezcutatzen diran etatican *jende eramantzalliac* atararic beren familiyetaco albotatic, geyenen berriric ez dala beñere izaten naiz gurosoac alegiñ guztiyac jarriric, jakiteco ayen norazkena edo

izaera, sayaturic ortaraco, ez itsas alde ontan bacarric, baizic baitare Ameriketaco lurretan, egunero icusten dan bezela ango paper argitaratubetan.

Gauza au gertatzeco, gazte sasoiric onenian daudenac eramanazitzeco orremezte milla legua bidez sorterritic, irukitzeco lapurreta era berrico oyekin illuntasuna jende eramanaren ta familien artian, esagutu ta esan biarda, *jende eramantzalliac* ez dirala bacarric gizon escasiyan azitaco oitura onic ezduten alprojac deitu leizken batzubeac, arpegi erretaco keñu errechinacoac, beren *poncho* edo lanasco tala churi edo canela coloresco pusca, mendico manta bat diruriyenarekiñ, gaizki jantziyac besteric, baizic aben atzian arkitzen da jende escubac apaintzen ditubena guantiakiñ eta asco lezakena: au gauza garbiya da. Ala azaltzen dira gisa ascotara, asi indiyano moch baten antzetic jantziya ponchurarekiñ eta bere arpegi izekiyazgo eta gorrotagarriyekiñ, beste soñu aundico cochian dijuaneraño, panparroi, asco dan bat egiñic, beren esanez dubena aidetaco bat Ameriketac, iñore esagutzen ez dubena, eta iñore icuzten ez duben onditasun gaganantaren jabe dana, datorrela onera bere egiteco aundiyetara, esannaida, emengo jende eroatera, eta bidean araco biltzen ditubela lagun batzubeac, au da irabazteagatic lur abetatic eramaten dituben gisagajoac.

Orra bada zer diran oyec; qutzacurre baten-

gatic, edo amar ta naiz bost duro gatic arrapa-  
tzen duten persona bacnizteco, jartzen diranac  
aterazitezco beren jayotaco lur maitetic, eta  
gurasoaren naikida utzi aziric euscaldun umill  
ta errez sinistalari guztiyac, ordu charrian cho-  
ratzen diranac ayen ezkeni gezurtalarariakin.

○ Oyec dira mercatalari gaiztoac, beren ana-  
yac salerositzen dituztenac, Africa-co beltzac,  
edo, Asia-co *coolies-ac* balira bezela.

○ Esagutu dezatela bada guztiyac jendiori, al-  
de guztira sayatzen dana chanpon batzuben  
truc alde eginaitezco emendic beren anayai,  
izaera icaragarrizeoan jarriric aia cupidic  
gabe, nola arcume taldearen nagusi batec ara-  
tegira eramango balituzke bezela.

○ Gaitz aundicoa da egite au, bafian oraindic  
okerrago da iracurtzen danian egunoroco pa-  
per argitaratu batzubetan, Bilbao-co *La Union*  
*Vasco-Navarra* eta beste antzecuetan bezela,  
Malaga-n bizi diran jende batzubec artzen di-  
tuztela escutitzac, edo, *cartac* Buenos-Aires-  
etara juantziranenac, esaten dutela ez dutela  
inolaco moduz lanic arkitzen, eta ascoc egiten  
dituztela aleginac onera biurtzeco edo errita-  
ratzeco.

○ ¡Doacsbezco jendeac diru gosiaren mende  
jarrita Ameriketaratubac!

○ Zuben eranpe edo snfrimentubai, zuben mi-  
seyari, zuben malcoai, ez da faltaco norbait  
gauza abetan zerbait leusteco izanic, eran-  
tzungo dizutena, gizon langille zintzouc to-

patzen dutela an nore ongi begiratu eta biar-  
duten laguntza, onenian Europa-co beste edo-  
zein tokitan bañon obetago.

¡Azer burla!

Bañan gaiztakeriya eramatenda, oraindano  
esandegun bañan aruntzago.

Jendia eramateco jartzen dituzten moduac,  
artzen dituzte batzubetan personaren lapurre-  
ta egiteco antzac, eta orain dala denbora gu-  
chi gertatuzan egiazco gauza bat gazte ba-  
tekiñ, zein sartu azirican ontziyan engañatu-  
ta, ontziya irtentzen azi zan, gazte arri inda-  
rrian leorrerutzen utzi gabe. Eta azkenecoan,  
beste gazte napar bat Araoz izena dubenac  
azaldu du ango paper argitaratubetan carta  
bat, ezanic berariere beste orremeste gertatu  
zitzayola.

Orra bada nola *jende eramantzalletic* egiten  
diran jende lapurtzalleac. Orrela; esaten dan  
bezela.

Contuban irukirie zertaraño etortzen diran  
jende eramantzalleac, ezagutzenda ondo zer-  
gatic Donostico poliziyaco buru edo *inspecto-  
r-e* dan Olalde jaunac, zeña dan Arabaco San-  
ta Cruz Campezu-coa) arrapatu zubenian jen-  
de eramantzalle bat, arkituzizcan len esan di-  
tugunen arma clasiac. Nailiteke jakiñ zertaco  
ontziratzen zan ortzetaraño armatuba, bada  
ez da bat conturatzen burni bidean ibiltzeco,  
edo legezco ontzimerctarizcoan juateco, biar-  
dubela jarri batec armaz josiya, ibildu biar



baluke bezela lecu mendi lapurrez betietan edo contrabandoco ontzi legien contracoetan.

Burutaratzenda beztela, bacarric juan leikela orla, Americatara dijoaztenac azerretubac esagaturic gezurtitzac, gogor egingo dutenen bildurrez, arturic beren escutic justiziya dirubengatic euscaldunac chinoac balira bezela enganatu dituztenen contra.

Alde guztitara aditzera eman biarda, orobat America Sur aldecora jende eramantzalliac, nola salerosi chatar au beste aldetaco egiten dituztenac, guztiyac era batera egiten dituztela gezurrezco aginteac, bidajiac ezer pagatu gabe, naico dirubac eta denbora guchiyan aberatz; gortatzen ez diran gauzac, zergatic guztiyac diran antz bateco gaiztarriyac.

Inorc ez lezake bada orain beldurric izan eta gezurtatubac izandu dirala esateco eracayic, bizibide au artzen duten jendietatic, paper falso egintzalle eta jende arrapatzalletan biur-tzen diranac azkeneraco, ongi zayotenian.

Ala gelditzen dira bacartasunian, azalduric beren aurrian, ezin pasataco murruba alchaturbi, ez irabazteco bizi bide char izaten duten erriyac gatic, (eta oec ere engañatzen dituzte eramane aurrac gizonac bialdu biarran, eta bere biziyan achurric icusi ez duten jendeac necazariyan orde) eztare beste erri aldecoac diranen gorrotuagatic, baizic murru ori ayen aurrian alchaztendu jende onradubac izaten duben icarac arkitzeco gaitz eginzallickin.

Eta onlacuac dira, paper faltzo egilleac eta jende arrapatzalleac, erri guztitaco legetan dutenac izaera bat: zepoa.

Uste ontacoac dirala denac, eracustendu gero leusico degun iscribu chiki batec azaldu-danac lau probinzi euscal-naparretaco argitaratzen diran paper guztiyetan: guc artzen degu Bilbao-co La Union Vasco Navarra-tic.

Esatendu bada:

«Iracurtzen degu *La Concordia* deitutaco Vitorico paper argiratuban, gauza au:

El Eco de San Sebastian-ec diyo:

Onela erantzutendio Iruña edo Pamplona-co egunoroco paper batec guc egun batzubec dirala esaten gendubenari:

Irun-en geldiazi dituzte nescacha batzubec Buenos Aires-etara zijoaztenac batere paper edo pasaporteric gabe.

Berriyan ematendu Donostico paper batec eta gero esatendu: «Buruba austeco galdeeran-tzuna: ¿Nun zegoan jende arrapatzallia? — Guc erantzuten diogu gauza orri, ez dakigula nun egongo zan *jauncho* orri, bañan bay nun egon biarluken.—Eta contuban erorico ez balitz bezela, osatzen du bere asmua esanic:

—Presidiyuan.

Adizkidia: orrela argitasuna ematen dezu-nian, izena Juan Crisballu biartzenduke izan.—

Eta *jauncho* orrec izango ditu beste lagun-tzalleac.

Zergatic badiran.

Aben eta beste orlacoren artian eraman dituzte errepublica Argentinara juandaco azken urte ontan, eun milla persona bañan geyago.

Erri tristia....

Guria. —

Eta okerrrena da, jende eramantzalle batzubez euscaldunac dirala, sayatzen diranac egite char ontan lecu ascotan.

Baita beste itsas-aldian ere.»

Icusiya dago—esango degu itz neurtuban gauza itsusiya da-ta:

Jend'eramantzalle ta

lapur mendicuac

uste degu dirala

era batecuac.

---

## AMABI GARREN BURUA.

---

### GIZON JAKINTSUNEN IRITZIA.

---

Naiz oraindano liburuchu ontan eman ditugun ustegoac eta berriyac, izanic artubac batzubeac, ameriketan argitaratuco izcribuetatic, bestiac agintarien paperetatic, bilgumac azal dutaco liburubetatic, etaguc erri ayetaco eza-güera degun bidez esan ditugunac, alaere, contuban iruki biardegu zenbat baliyo duten gizon jakintzunen eta agintarien izaeran dau-denen ardirazi argitasunezcoac.

Asco baliyo duben *circular* edo paper zabal-tzeco argitaratuba, emantzuben Gipuzecoaco gobernadore cibil, edo, gobernuaren ordeco agintari Patricio Aguirre Tejada-co jaunac, nun icusten dan ez bacarric duben jakintasuna eta doaya dagon aginteco lecuraco, baizic



baita ere bere ezagüera osoroa'probinziyan diran bearrentzat eta naikida aundiya gure sorterrri noblearentzat.

Ara *circular* edo zabaltzeco argitaratutaco papera: «Españolac egun batian ta bestian izaten duten griñac Ameriketaco errepubliketara joateco, artudu azkenecuontan aiñ izugarrizco aunditasuna, non ezin egon leike iñor gauzac biar diran bezela begiratzen ditubenic eta zentzueoric, ondo contuban artu gabe.

Ez da doacabian gure probinziya jende guchiyena ematen dubena ortaraco, ustu ta escasituric sorterrriya.

Dijoan gizon bacoitzac aurkestatzendu zerbait lan biarrecua ezcutatzendana; eta nola lana dan onditasuna edo aberastazuna, etaguztiyen lanetic sortzendan denen aberastazuna, icusten da garbi, izazra ona guchitzendala erriya ustutzendan tokiyan, escasituric lurraren frutu edo alortac, eta beste bizi bidearen emaitzac.

Bañan oraindic badira gauza au contuban artzeco gainde aundiya goco ustegoac, mundu ontan gure eta gure anayen elcartasunaren oneraco jayotzen diranac, eta orregatic egitenda samiñago egite oyec berrirotzia, eta eziñ icusidira biyotza penatu gabe. Diruba erroz izateco ametzez betiac juaten diran geyenac urrutico lurretara, billatzera aberastasan bat iñon ore arkitzen ez dana, ez bada denboraz, makiñabat neke ta atsecaberekiñ, artzen dute

an agudo icaragarrizco alderantzi gogorra.

Bacarric, erbesteco lurretan, jayotaco erritic urruti, utzirican beren sortechia, naikidac, guraso ta senideac, eta gañera zuten bizibideu naiz ez izan ugarizcoa, beñepin paketzuta egiyazcoa, aguro sortzen zayote barrenian damutasun tristea gezurtizco itzekiñ beren burabac berotu zitzaizkitelaco, eta erritaratu nayan diruric gabe arkituric biurtzeco, pasatzen dute arrastaca bizimodu mingarria, animaren sosegua galduta icusiric dituzten bearrac eziñ bete dituztela. Asco iltzen dira lur aizetorki osasun aldecoac ez diranetan, oña jartzen duteneraco; besta batzubeac, bidajia ez dute bucatzen, biziya bidian utziric personac ez balira bezela ematen dizcaten tratu charrekiñ; eta guchi, chit guchi dira egunen batian etortzen diranac zerbait dirurekiñ, ainbeste neke samiñ ta irriscuren orde. Utzegiñ abec kentzeco eta gaitz abec ez aunditasunic artzeco, errietaco agintariac jarri biardituzte alegiñ eta gogo guztiyac gelditugabe, jende argitasun aski ez dutenai biardituzten itzac maiz adierazitzeco eta eracusteco zer bide diran zuzenenac beren oneraco.

Orre gatic bada adierazitzendet alcate jaunac ondo barrunduric gauza onen egokidaz, alegiñ guztiyac egin ditzaten egiyaren eza-güera sarrarazitzeco jende guchi jakiñ errezago sinistendituztenen artian, zoragarrizco eskeñi gezurtiyac, naico diruba denbora guchiyan

egiteco. Icasi ta jakindezatela, Ameriketara eramateco burubac berotzen dizcaten gizon oyeo, ichuraz biotz onarekiñ jarriric beren es-cubetan bidajia errez edo batere gasturic gabe egiteco modubac, ez dirala gizon biotz gabe batzubeo baizic, besteren ongitzaren gaiñ, chanpon batzubeo irabazteco dabiltzanac: icasi dezatela beren eta erriyaren naikidaraco dala onena, onradubena, eta errazena, sorterriyen lan egiñ ta bizitzia, eta ez ditezela egon jakiñ gabe arrotu ta jayotaco lurra usten dutenac menturazco gauza aundiyen billa, dijoaztela presaca iduripen edo mamu baten atzetic, chit guchitan egiyazco gertaera arkituric.

Azkeneraco, doanditzen dioten beren izaerez zerbait aldezatekenari, alduten bezela eta le-giari dagocanean, eragotzitzeco mercatari *jende eramantzate* oyeri, jendiac zoratzeco egi-ten dituzten alegiñ tristeac, eta nere aldetic nago ustian artuco dala contuban egite au bear bearrenatacoaren artian, bada ala ezca-tzen dute batera probinzi yaren zorionac, Es-pañiyaren mesedeac, eta gizatasunaren lege-ric goiyenac.

Donostiyan Apirillaren 13-an 1885-garren urtian.—Patricio Aguirre Tejada-coa, gober-nadore cibilla.

Izeribuan eta ala beste onen antzeco egilleac ematen dituben guztiyac, artzen ditu jendiac poz aundiyarekiñ, zergatic diran baliyo aun-

dicoac eta gure maitagarrizco euscal-erriya-  
ren zorioneraco chit bearrac.

Ez da bacarric Gobernadore Aguirre de Te-  
jada agintarien artean ezaguturic ondo bere  
duben lecucio egiazco bearra, eta erriyoni di-  
yon naitasunac mugituric, jartzen ditubena  
modu guztiyac Ameriketaraco joara ori era-  
gotzitzeco.

Naparruaco Diputaziyoac azaldu zuben bes-  
te iscribu zabaltzeco argitaratu eder bat asmo  
berarekiñ, eta Iruña-edo Pamplona-co Obispo  
jaun Iracasle On José Oliver eta Hurtado chit  
argidotarrac, emanditu makiñabat bider orre-  
laco izcribuac eta beste paperac, esanic zer egiñ  
biarduten bere mendecoac, eta artuere izandu  
ditu moduric gogorrenac, ishteco gure erri  
maite au ustutzeco daczakiten bideac.

Eziñ argitaratuco ditugu gue guztiyac, ba-  
ñan onratuco gera osoric jarri ta emen azal-  
tzen deguna:

«*Circular*, edo iscribu zabaltzeco argitara-  
tuba.—Zerbait denbora bada erri buru ontaco  
egunoroco paperac asmorie zintzuenarekiñ,  
gure gogo aundicoa izanic, datozela itz egiten  
gogor Egoi-aldeco edo Sur Ameriketaraco zori  
gaiztoco joeraren contra, joera galgarriya,  
eta indar aundiyc artzen dituena jende errez  
sinizcorrari egiten dizcaten eskeñi ascorekiñ,  
eta batez ere mendi tarteco eta beste bazerri-  
yetan bizi diranai, gizon batzubeac, bialdubac



onera urrutico lurretatic nesca mutillac araco biltzera.

Gogotic contuban jarriazi ginduzten iracur-tzen gendituben gauza mingarri ayec, icusi-ric zer penac eta eranpeac izaten dituzten ara dijoaztenac, Rio de la Plata-co urbazterretan arkitu orduco: geruago ta zailtazun aundiya-go lan zuzen bat izateco bacuitzac bere be-rrac betetzeco; bat batian ascori edo onenian goyenai barrenian sortzen zayoten opa ga-ñezcoa utzi duten lurrera biurtzeco; bidajian eziñ jarri dirala diruric ez dutelaco; errepubli-ca ayetaco *politica* edo gobernuaren izaeraco noiz nai diran nazpillac, eta beste milla gau-zac egiten dituzte gaitzac ango bizibideac. Bañan iracurri gendubedian ango mercatari batzubez zebiltzala probinzi ontaco mendi al-dian nezca gaste biotz onez errez siniscorren billa, urrutico lur ayetara eramateco, eta ja-kin gendubedian bilkera onec zorigaiztoan arkitzen zubela naizuten gartaera: contuban artzen degunian biardan bezela zer irrizcu-tan icusicodan doacabezco emacume mendi-tar oyen onestasuna, ateraric bizi diran zori-onezco eta pakeco escasiyatic duten biotz one-co bacundean, eramateco jende itzuskeri zale oitura charrecoen artera, nun jartzen diran animaco gaionderic ederrenac beren guraso onac barrundubac, galtzeco irrizcu gogorrian; gau-za abec guztiyac arrazatu zituztenian gure iruditzea, ezin geiditugiñan ishillac denbora

luzeagoan. Izanik naikida aundiya barrutiarrac edo erlijiyo Santubaren aldetic gure semiac diranen oneraco, guchi edo asco zoratubac Ameriketaratzeo, eman genduben *circular* edo argitaratu eta zabaltzeo paper bat Arzipreste jaun guztiyari, aben bidez artzeo mendi arteco erriyeb erretoreac eta denac alegiñ guztiyan dituzten modu eta indarrarekin lan egiteco alduten bezela desegiñic mercatariac jarritaco izenac lur aytara eraman nai zituzten personenac, zalacuan, guchi jakindaco jendien baimende doacabezco bat.

Gobernadore Cibil jauna eta Diputacio chit geidiatiya, jarriziran ere gauza ontan paper argitaratuben alde, zeñec zalutu zituzten gaitz gogor eta okerrabec, eta beren aldetic argitaratu zituzten beste *circularrac* paper oyetan, gaitz abec sendatzeco.

Arrazoi aundiyc ditugu egoteco ustian lan abec guztiyac izandu dutela gertaera on bat. Erantzun diguten escutitz ascoren artian *circular* orren gañian, artu degu bat, mendi arteco erri lenendicoen erretore zintzoenetaco batena. Ara, beste gauzen artian zer esaten duben jakiñ biardana:

«Jaun chit argidotarra: esaten diyodalaric beorren azkeneco Apirillaren 28-co beacurgarizco escutitza neregatanu dala, adierazitzeco biarrian nago, nola jauna berorren itz eder oyec zabaldu baño len, negüela ni asmo aundiycetan alditutan indar guztiyakiñ oju egiteco

emengo jendien salerosi nazcagarriyaren contra, eta orain indarrac arturic eta pizcorturic, Jaun chit argidotarra, bedorren egiazco itz aundiyekin, itz egin det gogotic meza naguziyan pulpitic, ill ontaco lenbizico igandetic, eracutziric dituben colore beltz icaragarriyazco guztiyakin, mercatariac egiten dituzten gauza itsuzi zacar oyec dacarten gertaera zikiña, batez ere mendi aldeco emacume gastiekin, choratu aziric gezurtizco eskeniekin, aguro ondo bizitzeco gisan jarrico diralaren bidez, eta errezago bereganatzeco diruba mercalariac berac aurreaturic bidajeraco, Rio de la Plata-co urbazterretano. Aguro nero itza zabalduzan uztez, ingurucorri guztiyetan, zergatic gertatuzan familiyac asi zirala conturatzen mercatari oyen asmo chatarrez, eta jakinen ganian goldituziran. Arzipreste jaunac bialduta-co beorren *circular* papera zabaldu nubenian, ezagaturic arreakin jendiac, ayec egin naizituzten lan okerrac, eta orrela, bera azpiratu zituben jende eramantzallearen egitiac: beste *circular* emantzubenac gobornuaren aldetic probinziyontan dan agintari burubac edo, Gobernador Cibil jaunac, ezcribu artan berritaruric, bedorrec esaten zuben guztia jendia ernai egoteco, bialduda Alcate guztiyai zabaltzeco biardan bezela.

Onen gertaera izanduda, nic dakitanex, oso pozgarriya, zergatic emacume asco jakingabian zoraturic gezurrezco ezkeniyekin, itz

eman edo apuntatubac zeudenetatic, bacanac izango dira Frantzico lurra icutuco dutenac an ontziratzeco Ameriketaraco; eta gauzie aundiyena alde ontan izanduda, bi emacume bacarric jarri dirala araco bidian, bat bere aitac eramana, eta bestia, anayac.»

Berrion abec ecarridigute atzegiñ gozoa gure penatutaco biotzera, eta gogo aundiyarekiñ argitaratzen ditugu, orobat izcribatu duben *Parroco* edo jaun erretore zintzoaren pozkidaraco, nola, beste onlaco gisan daudenac indartzeco egite ontan. Gisa ontan erantzuten diote gure circular-arri artu ditugun beste escutitzac. Orain bacarric gelditzen gera biarrian ezkerac emateco Arcipreste eta erretore jaunari, zeñecseñalpetu diran alegiñ guztiyac egiten esagutzera emateco gure iscribua, eta escatu mendi arteraco, egiñ deguna, iduritzian an biarrena zalaco icusiric emacume eramantzalliac Sur Americara an biltzen zirala, ta zabaltzeco gure *diocesis* edo lecu erlijiyo Santuaz gure gaiñ dagon guztiyan.

Daucagu esperantza Arciprestejaunac, erretore jaunac, eta *econom*o edo aben urrenac, egingo dutela bere gaiñ dagon dena, eragozitzeco jendien joera mingarrizco au, utziric gure erriya langilleric gabe achurkintza eta beste bizi bideetaco, eta jarriric denac irrizcu aundiyen galtzeco duten fodia, erlijiyotasuna eta oitura zar onac, ala gizasemeac nola emacumeac, eta jakina da orlijiyo Santuba ondo



gordetzen dan lur maitagarriyontan, izango diralagaiñ gañeco cristabac, naizizan maizter escasitubac eta langille bacunac, bañan urrutico lecu ayetan arkituco lirake irrizcu aundiyan astutzeco mundu ontan eta besteraco dan biar biarrena, eta gertatuco lirake alde batetic duten gauzie onena galduta, eta bestetic denbora guchiyen eta errez dirutzac egiteco idurritzi oyec ametzac izandu dirala.

Iruñan Uztaren 13-an 1881-garren urtian. Jose, Iruña edo Pampionaco Obispua.

Izcribatuba *circular* au beti Obispo jaun jakintzun, ongile eta beacurgarriyac, egiten duen bezela, itsasoz aronztic arkitu zuben ozendea, nundic esagutzendan zer egiazcoac ziran an iscribatutaco arrazoi zuzenac nola zan ere egokiyena, artu zuben asmua.

Agintari eta gizon argitazun aundico abetaz gañera, zenec esagutzen duten ondo zer biarrezco gauza da alegiñ guztiyan eragotzitzia Ameriketara joateco griña gogorori jendez usturic Españaia, eta batez ere gure erriya, asmo eta alderantzi denetaco egunoroco pape-rac, ez dute guchiyago egiñ gisa guztietara atzeratzeco jendia joera ontatic.

Ez da arritu biar ori icusiric, nola paper argitaratu oyec ondo itz egiñ duten gure liburucho onengatic, eta ez bacarrican paper nappar-escaldunac, baizican baita ere beste azaltzen diranetan aiñ gañecoac, nola diran *Revis-ta Agustiniana* Valladolidicoa, eta bertaco beste

batzubeac: egunoroco paper jendien artian asco zabaltzen diranac *La Epoca*, *El Globo*, *El Dia*, eta aben gisan Madrillen azaldubac; eta baita-  
re beste probinzitaco paperac izaera batecoac ez diranac, *La Concordia*, *El Anunciador*, *El Eco Mindonense* Galiziyacoa, *Boletin-revista de la Juventud Católica* Valenzicoa, eta orrela geyago.

Gañera esan biardegu azkeneraco, jende argitasun aundico asco izendatuco gendituzkiela gure lan ontan egiñ ditugun alegiñen alde, bannan au izango litzake lan zalla ta luzia eta orregatic uzten degu. Ala ere, eziñ lagaco degu señalpetu gabe beste asco jakintzunen artian, Marques del Riscal jauna, erriyari naikida aundiya diona; errespetagarrizco eta doai ascodun Goicoechea iracasle jauna, Naparruaco Diputaciyoaren Presidentia edo buru dana; asco esagututaco euskerazale puntaco Campion jauna, eta beste milla aben antzera jardun dutenac.


Gañera, ala ez balitz, eta bacarric arkituco bagiñake gure chikitasunian, orain izango genduke gure alde beste lagun baliyo eta indarreco bat: istoriya, edo, condaira.

Onec jartzendu bere orricada bacoitzian, orobat lengo denbora zarretan nola oraingo egunetan; ala erri ayetan nola gaurcuetan, gauze indartzuena eta zallena lurperatzen, eta eragozitzen dubena bacoitzaren aberastasuna

eta ontatic guztiyena, dala erriya ustutzia edo guchitzia jendiac alde egific.

Eta gayezco aberastasunetic baguaz beste iduritzi gañecotara, ameriketaraco griña eragotziric igotzen da bucaeric gabe, zergatic ez du bucaeric, eta illezcorra edo betirauna da duben ondapea, nola diran, erlijioac eracusten dituben egite eta oitura onac.

Ez degu guc esango ameriketaco izaerac edo oiturac dirala buru arñecuac, eta Jaungoicoac libratu gaitzala orrelaco onesgille edo caridade guchitatic, bañan gauza ori bayeztatzen ez badegu, esango degu beti, nunbait baldin bada arraza oitura oneco eta langillea, dala zabaltzen dana arcaitez betetaco mendi aundi sartaldeco Pirineoaren bi alde tara, mendi ori jarriya balegoke bezela escudatzeco beste aldeco erlijio gabezco gañez itsaso antzian Tubalen lur zarrera datozen colpe charretatic ondoratu naizic azkeneco euscaldunac beren oitura ederrakiñ.



Bucatu degu artu genduben lana.

Bañan oraiñ zalatu biardegu gauza bat.

Baloriac ez du erri jakiñic, omenac edo gai aundico izenac ez ore mugic, eta onradu ez da bacarric erri bat egiten.

Pozic esagutzen ditugu guc emen argita-

ratu ditugun erriyen gai onac. Bañan gizon umantac izaten badira ondo errespetubac beretacoen aldetic; jakintzunac artzen badi-tuzte guztiyen ezkerac; iduritzen bazaigu on-raera icusten degula jayo dan bacoitzian, gau-de guñbiar biarrian aditzera emateco, zer irriz-cutan arkitzen diran gure anai americatara-tzen diranac.

Ez diyogu guc gorrotoric lengo denboretan guriac izantziran lecu ayeri.

Ez gera iduritzicuac, gizonac bata bestien-tzat etsayac izan biardutela, bizidiralaco alde-ragiñdubac sortizecoy mugaren indarrez, nola diran itsasoac, eremu basatar zabalac, eta men-di tontor galantac. Guc uste degu sortizeco era-gotzi aben gaiñ, dagola beste gauza aundiya-goco bat guztiyac bentzutenditubena, nola dan Jaincoaren eta urcuaren onesguna, edo cari-dades zabaltzen dana mundu ontaco alde guz-tiyetan. Guc naico gendukena da, erri guzti-yac bat izatia, bañan gaurco izaera izanic bu-rutaratzen dan irabazi otz bidecoa, eracusten digu asmo eder au ez dala ametz bat baizic aski zalla egiztatua gertatzeco. Ala ere izaera triste au eraman azitzen gaituzte, jakindearen aditze onac, eracutziric lecu batzuben jabedi-ranac poztu biardutela beria duben baztar ba-tec bere contu egatzen dubenian, nola ama ba-tec icusicoluken alde egiten duben semiari, eskerrac eman diyon argitazunari arkituric bere gisan ondo isateco bidean; eta gañera



denborac denborakiñ eracusten dutelaco, ba-  
coitza bere contu izateco era azalduzarian,  
iltzala menderatasuna eta catibua, zergatic  
nun asten dan erriyaren bere gisaco izaera,  
bucatzala menderatzeco arrandea.

Mayatzaren 25-ian 1885 garren urtian.





## Arkibidea.

BURUAG.	Orrialdeac.
Bi itz aurrena. . . . .	5
Erriari. . . . .	7
I. Gauza onen egoitza, . . . . .	10
II. Bidean. . . . .	17
III. Ango elearen edo ganaduaren ondia. . . . .	22
IV. Achurkintza. . . . .	29
V. Beste bizi-bideac. . . . .	61
VI. Echeo lanketa. . . . .	67
VII. Escoladun jende Ameriketara- tubac. . . . .	75
VIII. Osasungarritazuna . . . . .	78
IX. America-Españarraren condai- ra. . . . .	88
X. Ango salerosien izaera. . . . .	105
XI. Jende choratzalle, arrapatzalle eta eramantzalleac . . . . .	119
XII. Gizon jakintzunen iritzia. . . . .	133

## Oarkera.

Liburucha ontan esan nai dana okertzen ez duten utzegin ebiki batzuber gañera, azaltzenda 108-co orricaren 15-en ler-roan au: «iraundute eskerrac ..» eta «jraun dute gaizki eske-rrac..» iracurri blarda,

# A. B. B. B.

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

10			H. J. K. K.	
11			E. J. K.	
12			K. J. K.	
13			L. J. K.	
14			M. J. K.	
15			N. J. K.	
16			O. J. K.	
17			P. J. K.	
18			Q. J. K.	
19			R. J. K.	
20			S. J. K.	
21			T. J. K.	
22			U. J. K.	
23			V. J. K.	
24			W. J. K.	
25			X. J. K.	
26			Y. J. K.	
27			Z. J. K.	
28				
29				
30				
31				
32				
33				

## CONTENTS

The University of Chicago  
 Press and Distribution Office, 525 North Dearborn Street, Chicago, Ill.  
 1912

